



**Miren Etxezarreta,
ekonomialaria:**

**“Nola izango da
naturala pobreak
eta aberatsak
egotea?”**

Larrun

Euskalgintza berritu ala hil

Herri mugimenduak

Barne antolaketatik
hasen da
mundua aldatzen



Jakoba Errekondo
ARGIArekin eman eta horret
kaleratutako liburuaz



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko apirilaren 26a, 2.458. zenbakia

ASTEKO GAIA

HERRI MUGIMENDUAK Kideen arteko zaintza lantzea
estrategikoa da. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 4

PERTSONAIA

MIREN ETXEZARRETA: «Mundua ez dugu bozkatuz
aldatuko». SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

KULTURANIZTASUNA Diskriminaziorik gabeko Gasteiz
ospakizun. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

JAKOBA ERREKONDO: «Baratzea iraultza bihurtzen ari da».
UNAI BREA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

PERTSONA HELBURU ETA AHT KONTRAJARRITA

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 20

ETSIPENEZ ETA AMORRUZ JON ALONSO / 22

EUSKAL ABESTIEN EUFONIA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Joko nuke. ITXARO BORDA / 22

ZIRTA Tabako bila. DANELE SARRIUGARTE / 24

BERTSO BERRIAK Sorterriko galderak. MIKEL ARTOLA / 25

ERDIKO KAIERA

MUSIKA Panfletotik harago, nola kantatu politikoki?

KEPA MATXAIN / 26

UKEDADAK Ukelele zaleen igandeetako zita.

ITZIAR UGARTE IRIZAR / 30

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 32

MUSIKA JOXI UBEDA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

ALEA Bartzelonan bai jakin. G. BEREZIARTUA MITXELENA / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

**IGNACIO MONTOYA CARLOTTO, ARGENTINAKO HAUR
LAPURTUA:** «Nire kasua azaleratu zenean, argentinarek

garaipentzat hartu zuten». KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 39

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Laborariek tresnak
elkarbanatzen dituzte, zuk zergatik ez?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 42

MAITE INDA, KONTSEILUKO ORDEZKARIA: «Errotiko aldaketa
nahi dugu Nafarroako hizkuntza politikan». IGOR AGIRRE / 44

EUSKAL PRESAREN AURKAKO JAZARPENA Troitiño
espetxeratze ingeniariaritzako juridikoa. XABIER LETONA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 43

NET HURBIL Eta Greziak badio bere zor publiko asko
bidegabeak direla? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kideen arteko zaintza lantzea estrategikoa da

Herri mugimenduak horizontaltze bidean murgildu dira. Proiektua pertsonak egiten dutela jakitun, talde-bizitzari garrantzia ematen zaio inoiz baino gehiago. Gainditu nahi dituzten eskemak errepikatzeak aldaketarik ez dakarrelako, eta amesten duten gizartea gaurdanik bizitzea gako zaielako helburuak lortzeko.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

JOXEMI ZUMALABE herri mugimenduekin eta herri mugimenduentzat lan egiten duen fundazioa da. Herri mugimendu zer denentz galdetuta, definizio zabalaren alde agertu dira bertako kide Marta Luxan eta Olatz Dañobeitia: “Gure jendartearekin eroso ez daudenak eta oinarrian dauden gauzak eraldatu beharra ikusten dutenak. Kontzientzia maila, praktika eta antolakuntza eredu oso ezberdinekin”. Herri mugimenduak momentu interesgarrian daudela azaldu digute: “Beste une batzuetan ziurtzat jo diren antolakuntzari buruzko zenbait gauza birpentsatzen ari gara mugimenu ezberdinetan. Hausnarketa eman-korra izango da etorkizun hurbilean”. Orriotara eraldaketa horren hainbat gako ekarri ditugu Joxemi Zumalabe, Bertsozale Elkartea, Bilgune Feminista eta Donostiako Piratak taldeen bidez.

Ez dira betiko garai onenak...

Testuingurua aldatua da bai Euskal Herrian bai munduan. Erronkak eta baldintzak ez dira lehengoak: “Herri mugimenduetan birkokapen bat ematen ari da, baina maila oso ezberdinetan. 30-40 urteotan nahiz eta apurketaren aldeko mugimendu oso bat egon den, sistema garatu egin da (‘ongizate’ deitzea gehiegi izan daitekeen arren, kontsumoaren kultura, indibidualizazioa...). Baina une honetan hori eteten ari da. Jendea hasi da bere buruari galdezka: nondik hasiko gara erresolbitzen bizimoduak, indibidual eta kolektiboki? Mundu antolakuntza honetan, estatua/administrazioa kokatu izan da eskubideen garante gisa. Eta

“Borroka egiteko egiturak sortzen ditugu, baina joera dugu irauli nahi dugun gizarte hori bera errepikatzeko. Egitura eta logika horiek dira pixka bat mugitzen ari direnak, baina oraindik pisu handia dute”

Olatz Dañobeitia, Joxemi Zumalabe

egun (ez lehen) hori ez du bete eta beraz borroka eremu oso bat dago hor. Eta gehitu horri Euskal Herrian gatazka politikoaren beste ziklo batean gaudela. Gatazka politikoak eragin handia izan du kulturalki, testuinguru errepresiboak eragin ditu hainbat funtzionamendu, hainbat logika, dinamiken denborak... Egun trantsizio anitzen garaian gaude”. Borroka eremuak ere mugitzen ari direla azaldu du Luxanek: “Lehen zegoen borroka desberdinen arteko hierarkizazioa (garrantzitsuagoak ziren borrokak eta ez zirenak) ezbaian dago eta bizitzaren iraupenarekin zerikusia duten dinamikak mahai gainean

jartzen ari dira, hau ezin baitu planetak eutsi. Eta horri lotuta, oso klasikoak ez diren dinamiketan talde berriak sortzen ari dira: elikadura subiraizta politizatu eta problematizatzearen inguruko taldeak; 2008tik honako ‘krisi’ testuinguruari lotuta herrietan eskubide sozialaren inguruko taldeak...”.

Zergatik ari dira zabaltzen barrura begiratzeko leihoak?

XX. mendeko borroken akatsetan ez erortzea da XXI.ekoan erronka, Dañobeitiaren hitzetan: “Proiektu handi batzuek iparretik galdu dute oinarrizkoa: borroka pertsonak garena. Norberaren jarre-rak, norberaren komunitate-auzo-etxea... Borroka egiteko egitura eta bitarteko batzuk sortzen ditugu, baina joera dugu irauli nahi dugun gizarte hori bera errepikatzeko. Egitura eta logika horiek dira pixka bat mugitzen ari direnak, baina oraindik pisu handia dute”. Bat dator Bertsozale Elkarteko Aritz Zerain:



“Herri honetan proiektua lehenesten da eta badirudi proiektua denaren gainetik dagoela. Baina proiektua pertsonak egiten dute. Elkar zaintzen ez badugu, proiektuak ez du aurrera egiten. Proiektua ez baita ezerezetik sortu eta aurrera doan zerbait”. Donostiako Piraten artean ere horren kontzientzia esnatzen ari da, Lander Arbelaitzek azaldu duenez: “Aurten guztion artean erabakitako urteko erronketan, lehenengo hamarren artean hiru zaintzaren eta gozamenaren esparrukoak izan dira. Zaintza praktikan nola sustatu daitekeen proposamenak lantzen ari gara”.

Oreka: proiektua-taldea-pertsona

Horra hor orekaren hiru elementuak, edozein erakundek bere egoera osasuntsua den ziurtatzeko aztertu ditzakeenak.

Luxanek azaldu digunez, gakoa da pentsatzea talde bizitzak eragina duela proiektu politikoan: “Lehen ez zen zuzenki lotzen talde bizitza proiektuarekin. Hainbat mugimendu asanbleariotan entzun dugu ‘hori txorakeria bat da’, ‘ez du merezi gure arteko gatazka batez hitz egiteak’... Ez da lotu izan proiektu politikoaren eraginkortasunarekin, proiektu politikoaren bidea taldearen bidearekin, ez bada ‘gutxi gara ala asko gara?’, zenbakiaren pisuarekin neurtzeko. Baina ez da behar beste

Joxemi Zumalabe Fundazioak bere ikastaroetan bildutako esperientziekin osatutako mapa kontzeptuala irudiz adierazi du Axpik. Hona hemen talde bizitza osasuntsurako landu daitezkeen mikropolitikak: Taldearen autokontzientzia lantzeko politikak, integritasuna lantzekoak (bizitza vs. militantzia apurtu), aniztasuna, zaintza, subjektuak eraikitzeak, botere asimetriak lantzekoak eta proiektu politikoa gaurdanik bizitzekoak.

landu taldean zer nolako bizitza dugun, taldeari zer nolako espazioa eskaintzen diogun, proiektuak bidean taldea itotzen duen edo lehertzen duen...”. Bide horretan oraindik egiteko asko dagoela azaldu dute Zumalabekoek: herri mugimenduetako taldeak kontzientzia hartzen hasi dira baina talde bakoitza kokapen batean dago, eta kolektibo baten baitan ere militante bakoitzak gaia ezberdin bizi du. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Piratek taldearen egitura erabat aldatu dute urte gutxian, horizontaltasuna irabazteko. Inaxio Oiarzabalek kontatu duenez: “Sorreratik hamar laguneko lantalde bat zen mugimendu guztiaren antolaketaz arduratzen zena. Duela sei urte, ekimenetan parte hartzen zuten koadrilak antolakuntzan ere txertatzeko urratsa eman zen. Koadrilen mahai edo ordezkaritza sortu zen, baina jarraitzen zuen aurreko hamar laguneko koadrilak egoten. Koadrilen ordezkariak erakusten zuten erabakiak hartzeko ahalmena eduki nahi zutela, erabakiguneetan eztabaidak partekatu nahi zituztela... Duela hiru urte erabaki zen antolaketa orokorra aldatu behar zela eta ez zuela zentzu handiegirik jaietako parte-hartzeaz hitz egiteak guk talde barruan parte hartzea murrizten bagenuen. Horrela sortu zen duela bi urte lehenengo Kofradia eta

Bilgune Feminista: Gozamena politizatu

URTEAN bi asteburu-pasa egiten dituzte: irailean plangintza prestatzeko eta udaberrian formaziorako. “Txute bat dira” ziurtatu du Arakistainek, hauetan gune informalek leku gehiago dutelako. Trenorrek azaldu duenez: “Plazerari ere tarte eman behar zaio. Gustura ez zauden lekuan, egin behar duzulako egiteak iraungitze data dauka. Ezinbestekoa da zaindua sentitzea, gustura, ongi pasatzea, eta sinisten duzun hori eraikitzen ari zarela sentitzea, borroka plazerez egitea”.

Gune informalek politikoki lantzen dituzte Bilgunean. Trenor: “Gune informalek beti egon dira, baina berauek kontzienteki landu eta probokatzea lan bat da. Beste edozein gai bezala lantzen ditugu gune informal horiek bileretan. Adibidez, beti datoz kide berriak mugimendura, eta nork egingo die pertsona berriei harrera? ardura hori banatu egiten da. Edo astebukaera-pasetan gaueko gaubela ez dago gidatuta, baina badu dinamizazio puntu bat, ekimena hartzen duen norbait, eta ardura horiek banatu egiten dira. Metodologia bat daramate eta berariaz lantzen dira”. Festa eta generoaren gaia kontzienteki landu du Bilguneak, noiz eta zergatik dauden eroso jai batzuetan eta zergatik ez beste batzuetan. Arakistainek nabarmendu duenez: “Guretzat lehen lerrokoa da horri dimentsio politikoa ematea. Eraldaketa ez da bileretan soilik ematen, espazio oso ezberdinetan ematen da, gune informaletan ere, eraldaketan gaude”. Gune informalek kontzienteki lantzeak bere bidea egin duela adierazi dute, horren adibide Topaketak: “Duela urte batzuk Tolosan izan ziren Topaketetan lau katu geratu ziren festan, eta aldiz, aurtun Ondarroakoetan ia ez ginen kabitzen lo egiteko gunean. Bilakara oso nabarmena izan da”.



ikusitako Kofradiak antolatzeak bide eman-
go zuela transparentzia ariketak egin eta hori-
zontaltasuna irabazteko”. Egun 280 pertsona
inguru daude antolatuta Piratetan, Kofradia-
ka. Zenbait Kofradia auzoka sortu dira eta
beste batzuk lan esparruka. Kofradien orde-
zkariek mahaia osatzen dute, Ontziola deitua,
eta bertan gehitzen dira ikuspegi orokorra
duten funtzioak: komunikazioa, diru-zaintza
eta koordinatzaile orokorrak. Batiste Ezeizak
antolaketa aldatzeak parte-hartzean izan
duen eragina azaldu du: “Lehen zegoen
hamar lagunek koordinazio taldea irekia
zen, baina ez zen erraza eta eroso basterik
gabe han azaltzea ‘aupa, ni ere zuekin ezta-
baidatzera eta erabakiak hartzerantz’ esa-
naz. Ikusten genuen kritikatzeko genuen
horretatik, alegia, pertsona gutxi batzuek era-
bakitzen zutela denon Aste Nagusia, etxe
barruan ere ez geundela oso urruti. Ez hala
nahi genuelako, baizik jendea asko kostat-
zen zitzaiolako molde horretan parte har-
tzea. Kofradiekin parte-hartze guneak herri-
tarrengandik gertuago daude (auzoan edo
interesguneen bueltan sortuak baitira), eta
jendea errazagoa zaio bertara jotzea. Horrez
gain, zenbat eta Kofradia gehiago egon,
orduan eta jende gehiago ari da erabakigu-
neetan parte hartzen. Era honetan proposa-
menak jasotzeko, eztabaidak emateko, era-
bakiak hartzeko esparrua pila bat zabaltzen da”.

Bertsozale Elkarteko kide Esti Esteibarrek
azaldu duenez: “Azken hamarkadan, gizar-
tean bezala Elkartean ere egin da sakonagoko
kontzientzia ariketa bat, eta egun pertsonen
arteko parte-hartzean harremanak, elkar-
zaintza eta abar gehiago hartzen dira kon-
tuan. Horren harira Elkartek 2008an Harre-
manen Taldea sortu zuen. Eta hortik Genero
Taldea sortu da”.

Bilgune Feministan gai honen kontzientzia
betidanik eduki dutela adierazi digute Idoia
Trenor eta Miren G. Arakistainek, baina talde
dinamikan hori lehenesten denborarekin ikasi
dute. Trenorrek azaldu duenez: “Pertsona
batzuek saiakerak egin zituzten urteetan
zehar pertsona, taldea, zaintza lantzeko, baina
ez zuten lortzen, zegoen garrantzia politi-
korik ematen ez zitzaiolako. Lehenago kon-
tzianteak baginen ere gai honek duen garran-
tziak, 2012an hasi ginen lantzen eta Joxemi
Zumalabe Fundazioarekin eginiko saioek
balio izan ziguten gai honi dimentsio politi-
koa emateko eta praktikara ere eramateko”.
Arakistainek gaia esplizitu egin eta adostea-
ren garrantzia azpimarratu du: “Gauza bat da
gaia presente egotea. Baina modu adostuan
eta kolektiboan espazioa ematea eta neurriak
hartzea beste gauza bat da, alegia, dimentsio
politikoa ematea, honi buruzko erabakiak

DABILEN HARRIARI GOROLDIORIK EZ

militaniziaz eta horizontaltasunaz hausnaritzen



Zaintza eta parte-hartzeari buruzko herri mugimenduetako hausnarketak
Dabilen harriari goroldiorik ez liburuan bilduak ditu Joxemi Zumalabe Fundazioak. Edozein erakundek eskura behar lukeen erreminta, ariketa praktikoz betea.

hartzea aurtengo egitasmoa bezain garrantzitsua dela jakitun izatea. Neurriak denen artean adosten direnean, orduan materializatzen dira benetan”.

Bakoitzak bere erara baina gaiari heldu dioten hiru talde dira. Daño-beitiak kritikatu du beste hainbat taldetan gai hau politikoki zuzenetik bizi dela: “Leku batzuetan taldea, horizontaltasuna, erabakien parte denok izatea, ikusten da gestio eredu on baten gisa, Kalitateko Q gisa”. Aldiz, taldearen eta proiektuaren artean dagoen loturak potentzialtasun handia duela ziur da: “Dibertsitate-tik, eragiteko-pentsatzeko-egiteko modu anitzak horizontalitatean artikulatzeko gaitasuna dugunean, proiektuaren abiada eta potentzialitatea biderkatu egiten da”.

Zer ederra aniztasuna... Baina nola kudeatzen da?

Bertsozale Elkartea aniztasuna artikulatuz ari da sorreratik. Hasieratik bertako kide dira bertsolari eta bertsozaleak, herrialde bakoitzak berezko elkartea du (hauek oso errealitate ezberdinetan dihardute), belaunaldiak gehituz doaz, soldatapeko (74 langile ditu egun) eta borondatezkoen lana uztartzen ditu, bakoitzaren lan profila oso anitza da (koordinazioz oso lan kualifikatura)... Ondorioz, Elkartea ulertzeko modu asko daudela azpimarratu digute Zerain eta Esteibarrek. Kezka nagusia borondatezko eta soldatapekoen lana orekatzea omen da. Aniztasuna artikulatzeko gakoa da erabakiguneetan bat egiten dutela hauek denek, eta erritmo pausatuan dihardutela, Esteibarrek azaldu duenez: “Zuzendari-

Joxemi Zumalabe: Meteosat eta Kasu!

12-15 KIDE DIRA Joxemi Zumalaben. Daño-beitiak hiru hilero talde bizitza aztertzeke egiten duten Meteosat lanketa aurkeztu digu: “Leku erosoan biltzen gara, ahal bada presarik gabe. Eta aztertzen dugu pertsona bakoitza hiruhileko horretan zelan dagoen, aldaketarik izan duen osasunean, lanean, zaintzan... Gero aztertzen dugu zelan sentitu den norbera aurreko hiruhilekoan taldearekiko eta proiektuarekiko, zerk sentitu arazi duen ondo eta zerk gaizki. Proiektuarekiko ditugun kezka, ilusio eta atxekimenduan ematen diren aldaketak garrantzi handia izaten dute gure Meteosaten. Berau berpentsatuz tarteka. Ariketa hori ez da beti lore arteko bidea izaten, eta hori egin aurretik ahalegintzen gara elkarri autoestimua igotzeko dinamikak egiten, goxo hasi eta goxo amaitzeko”.

Gorputzari loturiko lanketak ere egiten dituzte, “eraldaketak ez baitira diskurtsiboki soilik gauzatzen, gorputz-emozio eta pentsamenduaren arteko elkarrekin-tzan gauzatzen dira”. Meteosat batetik sortu zen Kasu! lantaldea, iazko urte bukaeran: “Plangintzaren %90-95 bete-a genuen baina zelan bete genuen? Zeren gainetik? Gure neke mailari, taldean bizi izan genituen unei eta abar begiratura eta etorkizuneko finantzazioa nola lortu aztertzeke sortu zen Kasu! lantaldea”. Bertan ari dira barne antolaketa birpentsatzen: erabakiguneak non dauden, zentroan zer dagoen, hori nola mugitu, gauzak horizontalagoak nola egin... “Norantz egin nahi dugun bidea eta zelan pentsatzea da gakoa, talde gisa hazi nahi dugun edo ez, militante gehiago nahi ditugun edo ez, liberatu gehiago nahi ditugun edo ditugunak kenduko ditugun... Badu dimentsio ekonomikoa, egiturazkoa eta funtzionamenduzkoa”.

tzetan borondatezkoak dira kide gehienak. Zergatik? Elkartearen dinamika handia eta azkarra delako, eta profesionalok oso lan sistematikoa dugulako eta erabakiak hartzeko presa handia, inertziak. Borondatezkoekin partekatu behar izateak kanpoko begiratura jasotzeko ere balio du. Militanteen begiratu hori oso inportantea da zeren eguneroko lanean batzuetan galdu egiten da perspektiba.

Piratak: Balioak birdefinitzen

OTSAILEAN 65 bat lagunek asanbladan birdefinitu eta sakondu zituzten Donostiako Piraten balioak. Arbelaitzek azaldu duenez: “Bere garaian bista handiz erabaki zen jai herrikoia euskaldunak, parekideak eta parte-hartzaileak izan behar zutela. Baina ordutik denbora asko pasa da, mundua aldatzen doa eta ikusten genuen egun egiten genituen gauza batzuk hor kokatu beharra, baita aurrera begirako lan ildo berriak ere”. Espazio Irekia izeneko dinamika baliatu zuten: “Norberak pentsatuta ekarri zituen ordura arteko hiru balioez gain, beretzat garrantzitsu ziren hiru, eta txarteletan idatzirik, lurrean kokatu zituzten borobil erraldoi batean. Ondoren, elkarrekin hitz egin gabe balioak multzokatu genituen denen artean eta balioak lantzeko taldetxoak osatu genituen. Multzo bakoitza zein hitzekin laburbildu adostea eta balio hori praktikan nola jarri aztertu genuen denon artean. Parte-hartzaileak mahai batetik bestera ibil zitezkeen balioak lantzen”. Ezeizaren hitzetan lanke-ta hori gakoa izan da: “Ez dezagun inertziaz funtzio-natu, bere garaian erabaki zutenen eskutik hori jaso dugulako soilik. Egungo balioak eta funtzionamen-dua guztion artean kontzienteki erabakiak izan daitezela”. Balio horiek egunero egiten duten lanarentzat “ipar orratza” direla diote, eta oraindik prozesua irekita badago ere, mugimendu osoa sintonian jartzeko balio izan dutela.

Pentsa liteke Elkartea bere funtzionamen-duan oso mantsoa dela, baina horrek eragin-dakoa da. Elkartek esku artean dituen gaiak batzordeetatik pasatzen dira eta batzorde horietan borondatezko kideak daude, eta erabakiak kontsen-tsuz hartzen dira. Ez dugu ezer bozkatzeko. Guretzat ezinbesteko da prozedura hori, bestela azkartasunaren izenean parte-hartzea murrizten ariko ginate-ke eta proiektuak galdu egingo luke aniztasun eta izaera ireki hori”.

Hainbat praktika on

Trenorrek azaldu digu nola landu duen Bilguneak sorreratik lidergo konpartitua kontzien-teki: “Aniztasuna bermatu nahi genuen lidergo bakarraren aldean. Garrantzia ematen diogu medioen aurrean ahalik jende gehienak Bilgune ordezkatzeari eta Bilgune Nazionalen asanbladako puntu bakoitza pertsona batek azaltzeari, ahotsak entzun daitezen”. Kon-zienteki hartutako beste erabaki bat da Bilguneak

“Kosta egiten da onartzea botere banaketa badagoela gure artean. Klabea izan zen horretaz hitz egiteko espazioa eskaintzea”

Idoia Trenor, Bilgune Feminista



neak kideen zaintzarako espazio ere izan behar duela, eta hainbat ekintza zehatz burutzen dituzte horretarako. Adibidea jarri du Arakistainek: “Herrietako taldeetan asko hitz egiten dugu bakoitza nola dagoen, pertsonalki, aukeraz eta disponibilitatez, gogoz, asmoz, taldean nola gauden...” eta proiektua kideen indarren arabera egokitzen dute tarteka: “Adibidez, deskantsuak hartuz edo gauzak beste modu batera planteatuz. Proiektuak mugatzea zaila da baina ikaskuntza bat, era berean”. Lehen-tasunak markatzea eta gai urgenteak eta ez direnak bereiztea ezinbestekoa dela argi dute.

Parte-hartzearen ikuspegi orokorra landu dute Bilgunean, Arakistainek ohartarazi duenez: “Parte hartzea ez da hitz egitea bakarrik.

Parte hartzea da entzutea, eta denon artean gutako bakoitza eroso egoteko moduak bilatzea. Parte hartzea presentzia da. Garrantzia ematen diogu entzuteari, eta ez hitza bakar-rak bereganatzeari”. Horizontaltasuna bermatzeko metodologia gakoa dela gehitu du Trenorrek: “40 kideko asanbladetan denon hitza entzun dadin errondak

asko erabiltzen ditugu baina gaia landu genuenean jende askok esan zuen errondetan ez zela eroso sentitzen. Hartu genuen neurrietako bat izan zen errondak gutxitzea. Badakigu pertsonak mugak izan ditzaketela jende askoren aurrean hitza hartzeko eta horregatik talde txikitari egiten ditugu lanke-tak, denon ahotsa islatuko dela bermatzeko”. Gaiak teoriatik lurrera, bizipenetara ekartzea da parte-hartzea bultzatzeko beste bideetako bat, Trenorrek azaldu duenez: “Kontzienteki prestatzen dira bilerak; teoria ezberdinak par-



tekatzen ditugu kontzeptuak argitzeko baina lanketa pertsonala izaten da, zentroan bizipenak jartzen ditugu”.

Esteibarrek azaldu duenez, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen kideen arteko gatazkak eta gaizki-ulertuak gainditzeko kultura zabaltzen ari da: “Talde lanak aukera handia ematen du norberak bere burua ezagutzeko. Zerbaitek tentsioa sortzen duela ikustean, ahalegintzen gara norbere barrura begiratzen, norberak hor zer parte izan duen aztertzen. Kultura aldaketa handia eman da”.

Bertsozale Elkarreak hainbat gai estrategiko prozesu parte-hartzaileen bidez landu ditu azken urteetan. Baita Piratek ere, ezkerreko koadroan ikus daitekeenez.

Boterea dantzan

Zergatik kostatzen da zenbait gunetan aldaketa? Daño-beitiak ahobilorik gabe jaulki du: “Antolaketa kuestionatzeak dakarrelako zenbait pertsonen botere eremuak kolokan jartzea, eta horrek erresistentziak sortzen ditu”. Aldaketa esplizitu egitearen garrantzia azpimarratu du Arakistainek: “Ez bada esplizitu egiten eta adosten, erresistentziak ezkutuan geratzen dira, eta erresistentziak denok eduki ditzakegu, gai honek eremu pertsonala ukitzen baitu. Egia esan, Feminismoak mundua bizitzeko eta ulertzeko gakoak eskaini dizkigu; artean, botereaz, zaintzaz, edota subjektibotasunaz eta kolektibotasunaz pentsatzeko aukerak”. Trenorrek dio Joxemi Zumalabe-koek gidatutako saioek balio izan zutela gaia landu eta zegokion dimentsioa emateko: bideratzeko: “Kosta egiten da onartzea eta ikustea botere banaketa edo mailaketa bat badagoela gure artean. Klabea izan zen horretaz hitz egiteko espazioa eskaintzea”. ■

Bertsozale Elkarteak: Festa baina arautu gabe

ESTEIBARREK nabarmendu du urteen poderioz Elkarrearen eguneroko lana asko instituzionalizatu dela: “Bertso udalekuak, bertso eskolen festak, horiek denak egitea da gure helburua, baina kalean hori gertatu dadin Elkarrean oso bestelako lanak egin behar dira. Hori gertutasuna eta faktore humanoa galdu gabe egitea da gakoa”. Beharbada hori orekatzeko, kideen arteko festak espontaneoak izatea hobesten dutela nabarmendu du Zerainek: “Bertsolaritzak berak ere badu puntu informal hori. Dena antolatu egin behar dugu? Hori ere ez bagara gai berez egiteko, ez bazaigu berez ateratzen, ez goaz ongi! Gainera antolatuz gero batzuek sentitzen dute ‘jada badator goitik!’”.

Elkarreko langileen artean udara partean Uztapide Eguna egiten dute aspaldidanik. Esteibarrek azaldu duenez “langile guztiak gaude gonbidatuak. Lehen joan beharrekoa zen, egun ez da behartzen. Nahi duena etortzen da. Ekimen ezberdinak egin izan ditugu”.

Bertsolaritzak berak ere sortzen ditu antolatzaileentzat festak, esaterako Bertso Eguneko gauean, txapelketak ere festarekin bukatzen dituzte. Baina egun handien aurretik kontzienteki festa egiten dutela azaldu du Zerainek: “Ekintza handiak datozenean, adibidez, txapelketa bat, aurreikusten dugu tentsioa egongo dela, haserre momentuak eta adiskidetzeko momentuak egongo direla... orduan saiatzen gara aurretik parranda bat egiten elkarrekin. Festak harremanak goxatzen ditu eta kolektibo guztiak batzen ditu, bertsolariak, zaleak, herrialde ezberdinetako jendea...”.



MIREN ETXEZARRETA

«Mundua ez dugu bozkatuz aldatuko»

“Harridura ikur gehiegi... Eta nahikorik ez”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

“Amatxo, gu zer gara, pobreak ala aberatsak?”, galdetu du haurrak.

Sistema kapitalista ez da dorpea, gertatzen den oro naturala, berezkoa dela sinetsarazteko gaitasuna du. “Horixe da dagoena”, “zer egingo zaio”, “ez dago besterik”... Nola izango da naturala pobreak eta aberatsak egotea? Zein zuhaitzetatik sortzen dira oso pobreak eta oso aberatsak? Hori normalizat jotzea da kapitalismoaren garaipenik handiena. Izan ere, estralurtar bat Seat enpresan sartu eta 7.000 langile, agindutakoa bete beste zeresanik gabe, bost nagusiren zerbitzura jo eta su ikusiko balitu, “zer gertatzen da hemen?” harrituko litzateke. Bibliak ere argi eta garbi dio pobreek elkar lagundu behar dutela, ez aberatsek. Izugarria da hitzen pisua, lengoaiaren indarra. Orain, esaterako, ez da pobreez hitz egiten, bazterketa arriskuan edo pobreziaren muga dagoen jendeaz baizik. Zer esan nahi du horrek? Jendea pobrea da edo ez da. Gero eta nabarmenagoa dena makilatzeko balio dute hitzek, sistemari isilik komeni zaizkion alarmak ez pizteko. Kontzeptu ponpoxo eta konplexuak gaia “adituen” esku uzteko gonbidapenak dira, debateak estaltzeko, ezberdintasun ideologikoen talkak itotzeko. Kapitalismoa ustiapen ekonomikoa baino gehiago da, bere behar eta premien arabera errealitatea optimizatzen duen balore sistema oso bat.

Alabaina, posible da krisirik gabeko kapitalismoa?

Kapitalismoaren ADNan daude krisiaren erroak. Pertsonoi heriotzarekin gertatzen zaiguna gertatzen zaio kapitalismoari krisiarekin: nahiago luke saihestu baina ezin du.

Hala, krisiei etekina ateratzen ikasi du, bere burua garbituz, aberatsenen posizioa indartuz, eta batez ere, jendartea beldurtuz. Azken urteetan krisiak justifikaturik onartu diren neurri guztiak irentsi ezinak lirateke oparotasun aro batean. Murrizketak, ongizatearen deuseztatzea, lan-baldintzen okertzea... Kapitalismoaren mekanika are gehiago olibotatzea baizik ez da. Sistemaren helburua ez da pertsonak salbatzea, kapitalak dirua irabaztea baizik. Horregatik salbatzen dira bankuak eta ez etxegabetuak. Hori bai, finantza sistemaren bururik gabe ez dagoenez finantza sistemarik, nagusi handiak salbatu dituzte, ez finantza sistema.

Gorbata nola, soka lepoan lotzen digutenean, “guk ez genuen nahi baina Europar Batasunak behartu gaitu” diote goi-agintariaren begi errukituek.

Europar Batasuna da sistemaren lemazaina. Kapitalismoaren aro neoliberala erabat bere egin zuenetik gure eguneroko bizitzetan neoliberalismoa errotzen dihardu. Horri

NORTASUN AGIRIA

Miren Etxezarreta. Ordizian sortua, 1936an. Ekonomian doktorea London School of Economics-en eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Liburu eta artikulu anitzen egile, ekonomia kritikoa ardatz duen TAIFA mintegiaren sortzaile, EuroMemo taldeko partaide, munduko herrialde askotan eman ditu klase eta ikastaroak, ezkerreko mugimendu sozial eta talde altermundialisten erreferentziatzko aholkari bat bihurtuz. 2007an, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedratiko emeritua izendatu zuten ekonomia planifikatuan.





egungo gobernu gehien-gehienak neolibera-
lak direla gehitzen badiozu... Ingalaterrako
film klasikoetakoa ari da gertatzen: maior-
domoak jauntxoak baino askoz kontserba-
doreagoak eta erreakzionarioagoak dira.
Zergatik hitz egiten da, bestela, hainbeste
krisitik ateratzeaz eta hain gutxi sistematik
irteteaz? Zenbat kasu gehiago lehertu behar
dira kapitalismoa eta ustelkeria esku bereko
hatzak direla ohartzeko? Gero eta gutxiengo
ugariagoak daude asaldatuta, baina ez dago
gehiengoaren sumindurarik. Krisitik atera-
tzeko fedea, orain urte batzuk geundenera
itzultzeko itxaropena eta sistemaren etenga-
beko legitimazioa dira nagusi. Gure kautako
beldurra orekatzeko edo egonkortzeko aha-
legina atzematen dutelako saltzen digute
errukia goi-agintariaren begiek. Begirada
horretan beti dago gauzak okerragoak izan
daitezkeen mehatxua.

**Egin diezaiogun sistemari mehatxu: kapitalis-
moak badu alternatibarik?**

Bai, baina epe luzera. Gizakiak bere zortea
aldatzeko aukera beti duela eta alternatibak

Pribatizazioak

**“Pribatizazioen
helburua
aberastea da, eta
aberasteko gain-
kostuak ezarri
behar dira. Baina
zergatik izan
behar dute
jarduera guztiek
aberastea xede?
Hori ulertzen ez
duguno, zerbitzua
okerragoa izango
da ematen zein
jasotzen
dutenentzat”.**

behetik gorakoa behar duela ez ahanztea dira
gakoak. Oso ohituta gaude gure zortea goitik
beherako kudeaketa modu eta proposame-
nen esku uzten. Ez gaitezen engaina, irtenbi-
deak ez dira alderdietatik etorriko, mundua ez
dugu bozkatzuz aldatuko. Bizitza ezberdin
planteatzen ari diren multzo ttipietatik dator
indarra, autonomia eremuetatik. Multzo
horiek zaindu, hedatu eta batez ere, koordi-
natzean datza alternatibaren sekretua. Politi-
ka egiteko eskema zaharrak puskatzen gabil-
tza. Jende gaztea ez dago jada bere alderdiko
liderrak zer esango zain inguruko injustiziei
erantzuteko. Niretzat zerumuga ez dago goi-
esferetan, oinarrian baizik. Balore eraldaketa
bete-betea gaude, han-hemenkako haziak
gero eta nabarmenagoak dira, gero eta jende
gehiago jabetzen da daukagunak ez duela
balio.

Alderdi politikoak ere jabetu dira?

Bai, baina euren biziraupena da jokoan
dagoena, eta hilko dela dakienak ere ez du
hil nahi izaten. Beti da delikatu zure burua
hiltzea berriz sortzeko aukerarik izango

duzun jakin gabe. Horregatik saiatzen dira euren bizia luzatzen, hauteskundeak irabazten, legegintzaldiari ahal bezala eusten, mirari bat gertatu eta euren zoria aldatuko delakoan. Arazoa da urteak daramatzatela aldatu beharra, haize berrien premia eta bestelako ereduak aldarrikatzen, urrats bakar bat eman gabe. Are gehiago, mugimendu sozialetara eurak gerturatu eta txertatu beharrean, mugimendu sozialek eurengana jotzea nahi dute. Euren iragaren morroi direlako doaz gainbehera. Ikusi besterik ez dago Syriza edo Podemosek sortu duten olatua eta sistemaren luze-zabaletik banatu zaien egurra.

Erakundeetatik politika alternatiboak egin daitezke?

Sistema antolatuta dagoen bezala, oso zaila iruditzen zait, ia ezinezkoa. Begira zer gertatzen ari den Grezian. Sistema politiko eta ekonomiko kapitalistaren baitako demokrazia batean gobernu aldaketa gertatu da, baina aldaketa usaindu orduko hasi ziren botere internazionalak mehatxuka, eta emaitzak jakitearekin bat jo dute frontera, indarraren arrazoia inposatzera, Europar Batasuna buru duten tropa neoliberalak. Espero izatekoa zen arren, izugarria da Europar Batasunaren jarrera. Garbi utzi dute hemen ez dela deus aldatuko, ez dela inor arrastotik kanpo mugituko. Kapitalismoak gero eta kontraesan handiagoak ditu, gero eta gehiago kostatzen zaio bere helburuak betetzea, eta ondorioz, ez dago herritarrei ezer oparitzeko moduan. Nahiko balu ere, ezingo luke eskuzabala izan. Berak sortu dituen egoerek eta baldintzek behartzen dute kapitalismoa geroz eta lehia-kortasun basatiagora. Horregatik ez dut irudikatzen sistemaren baitatik sortu daitekeen alternatibarik. Ez dut uste 1950-1960ko hamarkaden espiritura itzuliko garenik inoiz.

“Nik argi dut: jabetza kolektiborako bideak urratu behar ditugu, eta horretarako, bestelako jendarte antolakuntza ereduak behar dira”

Hemendik aurrera, sistemaren baitako politika ekonomiko bat nekez izango da jendartearen interesen aldekoa.


...

Har dezagun jabetza pribatua. Ekoizpen medioen jabetza pribatua deno ezingo da ezer konpondu, gutxi batzuen menean segituko dute askotariko gehiengoek. Zergatik uste duzu sistema kapitalistak jabetza pribatuaren metaketa baizik ez duela nahi? Hori kolokan jartzen ez duguno, jai daukagu. Hori, ordea, jendea ez zaio burutik pasa ere egiten. Horra sistemaren beste garaipen bat. Kapitalismoak 250 urte daramatza egunetik egunera okerrago funtzionatzen, baina jendearen begiak hori desastretzat ez ikustea lortu du. Sobiet Batasunaren porrotak, aldiz, jabetza pribaturik ezean dena hankaz gora jausten dela iltzatu du gure iruditerian. Zer aterabide geratzen zaizu zure soluzioa arazotzat jotzen denean? Nik argi dut, alta: jabetza kolektiborako bideak urratu behar ditugu, eta horretarako, bestelako jendarte antolakuntza ereduak behar dira.

Desazkundera zinezko alternatiba da?

Desazkundera zinezko alternatiba da?

Ez hazteak jendarte ezberdin batera eramango gaituela pentsatzeak ez dauka zentzurik. Are gehiago, kapitalismoaren baitan ez hazteak orain gertatzen ari dena dakar. Besterik da jendarte alternatibo baten helburua hazkundera ez izatea, jendarte osoaren ongizatea baizik. Hala, akatsa da kapitalismoa transformatu gabe desazkundera posible dela pentsatzea. Kapitalismoak ez du halakorik baimentzen. Niretzat kapitalismoaren eraldaketa dakarren desazkundera da gakoa, ez orain modan dagoen kapitalismoaren baitako desazkundera. Soluzioa sozialki



**MODELO
ARETOA**
EKITALDI KOPURUA
2012KO AZAROA - 2015EKO MARTXOA



ZINEMA ZAHARRETIK KULTURA EREDU BERRIA

AZKEN HITZA

Amona

"Egizu frogak. Eskatu inguruan duzunari amona bat irudikatzeko. Sukaldean amantala jantzita babarrunak prestatzen ikusiko du batek, beheko suaren beroan galtza-barrenak josten besteak. Amonaren eskuak lanerako latzak baina lastanetarako gozoak direla salatuko dizu iruditeriak. Tokatzen zaiona pozik egin eta tokatzen zaiona leun esatea dagokio amonari. Baina aizu, gaur egun amonak unibertsitateko irakasle ere badira, eta zorionez, batzuk ez dira politikoki zuzenak".



planifikatutako ekonomia batetik etorriko da. Nik ez dut autogintzan hazi nahi, baina bai ospitaleetan, unibertsitateetan... Horregatik iruditzen zait ahula desazkundearen teoria.

Kataluniaren edo Euskal Herriaren independentziak lagunduko luke bestelako ereduak sortzen?

Nire ustez ez. Egungo kapitalismoan gero eta pisu txikiagoa du identifikazio territorialak. Kapitala mugitu eta ekonomia saretzen duten nazioarteko eta mugaz gaindiko enpresentzat oso irizpide ezdeusa da lurraldetasuna. Hala, eraldaketa soziala ezin da lurraldetasunean oinarritu. Besterik da jendarte alternatibo batek kultura eta identitatea bezalako baloreak aintzat hartzea. Ni euskalduna naiz eta kito. Hori baloratu behar da, baina ez dut uste horretarako irizpidea lurraldetasunetik eraiki behar denik. Are gehiago, Espainiako Estatuko gero eta indar atzerakoi gehiagok erabiltzen du lurraldetasunaren argudioa eraldaketa sozialaren aldeko ahalegin eta izerdia diluitzeko. Hori gutxi ez, eta independentziak ez ditu ekologismoa, feminismoa edo elikadura burujabetza bermatzen, eta ez duzu emakumeenganako jendarte justua lortuko jendarte kapitalista batean. Gauza bera naturarekiko justiziarekin. Oso zaila da alternatibak kapitalismoaren baitan txertatzea.

Pentsioak

"Negozio borobil baterako aukera ikusi duenez, kapital finantzarioa pentsio sistema bere mesedetan xurgatzen ari da, funts publikoetan oinarritu beharrean. Zergatik ordaindu nahi dira ejertzitza edo monarkia funts publikoekin eta pentsioak ez?"

Bizi duguna bezalako aro nahasian etorkizunari begira jartzea bezain zaila?

Kapitalismoak diraueno gatazka sozialak iraungo du. Gero eta pitzadura eta arrakala gehiago izan arren, kapitalismoa oso sendo dago oraindik. Boterea eta boterearen zirkuituetan dabilzanak sistema hau betikotu nahi dute, baina sinesten dut ongizate kolektiboaz eta ondare komunaz arduratuko den bestelako jendarte sortuko dela borroka gogor eta luzeen ondorioz. Helmugatik orain 25 urte baino gertuago gaude. Munduaren zati handi baten deskontentua alternatiba berriak ereiten ari da. Bizitza beti izango da bizimodu hobe baten aldeko borroka eta borrokatzea haize-kontrako ibilera bat, kapitalismo sarraskitzaile hau suntsitu aurretik eta eraitsi ondoren. Tamalez, ezin zara lasai, besterik gabe, jendarte ezberdin baten alde jardun, parez pare kapitalismoaren esku beltzarekin topatu gabe.

Sistema honek bere burua arriskuan ikusten duenean indarkeria erabiltzen du, zenbat eta kinka larriagoan sentitu orduan eta bortitza. Horrek ezinbesteko galdera dakar: zer egin jipoitzen zaituztenean? Ni bakezalea naiz, borroka baketsu baten aldekoa, baina ez beste masaila jartzea predikatzen duten horietakoa. Arazoa da orain indarkeriaz erantzunda kalte gehiago egiten diozula kausari sistemari baino. Baina nork daki, agian zauria helduagoa, onduagoa, dagoenean, indar-harremana orekatuagoa denean, bestelakoak izango dira kontuak. Nik ez nuke hori nahi, baina badakit kapitalismoak ez duela beste irtenbiderik lagako. Ez dago egun arrastotik ateratzen saiatzen den orok jasotzen duen tratu basatia ikusi besterik. Bukatu da ertzainak eta mossoak zibilizatuagoak zirela uste zen garaia. Argi dago biolentzia boteretik datorrela. ■

Diskriminaziorik gabeko Gasteiz ospakizun

Helburua lortu du Gora Gasteiz ekimenak: interes alderdikoiek bultzatuta mezu xenofobo eta arrazistak zabaltzen ari zirela-eta, diskriminaziorik gabeko hiria aldarrikatzeko jaio zen, joan den azaroan. Apirilaren 18an bukatu du bere ibilbidea, gasteiztarren atxikimendu handiak babestuta.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Gora Gasteiz

PRESTAZIO SOZIALAK jasotzen dituztenei buruz Javier Maroto Gasteizko alkateak esandakoen ostean, eskubide eta aukera berdintasunaren defentsan sortu zen Gora Gasteiz, eta lau hilabete hauetan xedea soberan bete dutela adierazi dute arduradunek, kolektibo eta lagun askok aldarrikapenarekin bat egin baitu, eta bide horretan hiri ireki eta plurala diseinatzen ari direla baitiote, bizikidetza oinarri.

“Gorrotolari gorrotorekin erantzun geniezaiokeen. Baina gizarte honek ez duela merezi erabaki genuen. Ez du merezi gatazkarik, tentsiorik, eraso eta defentsaren dinamikorik. Eta zuri eta beltzari koloreen bidez egin diogu aurre, gatazkari elkartasunez, uniformizazioari aniztasunez, eskubideen murrizketari eskubide gehiago eskatuz, irainari musikaz”, azaldu dute hainbat kidek.

Jai erraldoia, aniztasunaren alde

Apirilaren 18ko jaiak eman dio amaiera jardunari: aniztasunaren eta eskubide sozialen alde, milaka lagunek egin zuten bat egun osoko festan. Gizarte mugimenduen txokoa, haur jolasak, musika, dantza... izan ziren, eta eguerdiko kalejirak “Gora Gasteiz! Stop Arrazakeria!” izan zuen lelo nagusia. Azken hilabeteetan gertaturiko “erabateko arduragabekeria” horren aurrean, “auzo-lotsa sortzen duten bakoitzean, gasteiztar harrotasunez erantzungo dugu, elkarrekin, indarrez eta kolorez!”, nabarmendu zuten antolatzaileek.

“Gorrotolari gorrotorekin erantzun geniezaiokeen. Baina gizarte honek ez duela merezi erabaki genuen”

Gora Gasteiz



Milaka lagunek egin zuten bat egun osoko festan.

Eguerdiko kalejirak “Gora Gasteiz! Stop Arrazakeria!” izan zuen lelo nagusia.



Aurpegi ezagunek babestuta

Asko dira mugimenduarekin bat egin duten herritarrak. Tartean, izen ezagun ugari: Bernardo Atxaga, Iñaki Iriondo, Irati Anda, Kar mele Jaio, Karra Elejalde, Katixa Agirre, Mikel Urdangarin, Oihane Perea, Igor Gonzalez de Galdeano, Izaskun Moyua, Unax Ugalde, Iban Zaldia eta kultur, kirol zein gizarte alorretako beste hainbat lagun. ■

JAKOBA ERREKONDO

«Baratzea iraultza bihurtzen ari da»

Usurbil, 1961. Paisaia kulturean espezializatutako paisajista eta ingeniari agronomoa, landareei buruzko jakintza biltzeari eta zabaltzeari buru-belarri emana azken hamarkadetan. ARGIAN astero-astero artikulak idazten hogeitaz inguru daramatzen honetan, Errekondok aspaldiko proiektua gauzatzen du, “dibulgazio lan horri beste forma bat emate aldera”: *Bizi Baratzea*, aldizkari honekin elkarlanean egindako liburua. Apirilaren 28an egingo den aurkezpenaren atarian, lan horren zergatia azaldu digu egileak.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Dani Blanco

Oro har landareez idazten duzu ARGIAN, baina liburuaren gaia zehatzagoa da: baratze zaintza. Zergatik hautu hori?

Besteak beste, baratzean gauza berezi bat gertatzen ari delako: iraultza dator. Lurra iraultzen da baratzean, baina baratzea bera iraultza bihurtzen ari da. Azkeneko urteetan, nekazaritza ekologikoan-eta lanean ari garenok ikusten ari gara badela halako buelta bat,

berriz etortze bat. Baratzearekiko grina pizten ari da, eta grina hori aprobetxatu behar dugu gure ikuspegia azaltzeko. Jendeak hori nahi duelakoan nago: baratze zaintza, baina bertakoari lotuta, betiko jakintzari helduko diona eta oinarrian kalitatea izango duena. Jaten denaren kalitatea, lurraren eta ingurumenaren kalitatea... Hortik abiatuta, asmoa da baratzean hasi nahi duen jende horrek



eduki dezala oinarri erraz, sinple eta hasteko grina hori, kemen hori, piztuko diona. Oso liburu grafikoa egin dugu, erraz irakurtzen dena eta batez ere norberak egin behar duenari garrantzia ematen diona: trikimailuak, gauza bitxiak... Hemengo liburugintzan, eta batez ere baratzeari buruzkoan egoera larria da, bertako ikuspuntuarekin egindako lanen ikaragarritzko gabezia dago.

Euskal Herriko ikuspuntua, esan nahi duzu?

Bai, argi eta garbi. Agian hego-hego Euskal Herrira bagoaz, Ebro ibaiaren inguruetara, informazio gehiago dago, Espainian, Katalunian, Italian... lan handia egin delako, antzeko lurretan. Baina isurialde atlantikoan arazo handi bat dago: erabiltzen ditugun liburuak italiarrak, alemaniarak, ingelesak... direla. Eta hemen ez dutela balio. Pentsatu behar dugu Euskal Herri atlantikoa dela Europako bitxikeria klimatiko handienetako bat.

Zergatik?

Euria inon ez bezala egiten du, hasteko. Baina ez ditugu muturreko eguraldiak, alde horretatik paradisua da. Ez da tropikala, baina...

Bi udaberri ditugu, liburuan diozunez: udaberria eta udazkena.

Hala da. Eta horrek asko laguntzen du. Baina kontuan eduki behar da etengabe. Teknika jakin batzuk, beste leku batzuetan ia nahi-taezkoak direnak, ezin dira hemen erabili. Ura aurreztekoak, esaterako. Halako zenbait gauza hemen eginez gero, hemen dauzkagun arazoak areagotu besterik ez dugu egiten.

Zer arazo?

Hemen dagoen handiena ur gehiegia da. Tuteran lanean ari bagara urari eustea garrantzitsua izango da, baina teknika bera Bermeon erabiltzen badugu seguruenik landare guztiak ustelduko zaizkigu.

"Oinarri-oinarrizko liburuxka izan behar zena 200 orrialde inguruko liburu handi bihurtu da azkenean". Ez dio oinarritzkoa izateari utzi, haatik. Ez eta ere irakurtzeko erraza. Atal labur askoz osatuta dago *Bizi Baratzea*, liburuaren bigarren goiburuekin (*Garaian Garaikoa Garaiz*) bat egiteko sortutako atalak. Noiz zer egin, horixe irakatsiko dizu trikimailu eta bitxikeriaz betetako lan honek. Hala ere, ez bibliatzen hartu, gida soiltzat baizik. Baratze bakoitza mundu bat baita.



Urez aseegi, nolabait esateko?

Hori baino, kontua da gehiegizko hezetasun horrek ekartzen dituen gaitz gehienak onddoak direla. Onddoak hezetasuna eta giro epela dagoen tokietan garatzen dira, hau paradisua da haientzat. Beraz, behar genuen liburu bat, tira, ez derrigorrez liburua, baina bai nolabait informazioa biltzea eta prestatzea hemengo pentsamoldearen arabera. Eta pauso hori eman dugu. Uste dut garrantzitsua dela hori jakitea: *Bizi Baratzea* hemengo baldintzetara egokitzeko pentsatutako liburua da.

Euskal isurialde atlantikoari begirakoa da liburua, hortaz.

Ia erabat. Hegoalderako ere balio du, eta landarez landareko atalean saiatu naiz bi aldeak lotzen. Baina zaila da. Garrantzitsuena da ohartzea liburuak oso oinarritzko informazioa ematen duela, eta norberak egokitu behar duela. Baina ez isurialde batetik bestera bakarrik. Isurialde berean ere ez da berdin Bermeon lan egitea edo Markinan. Gehiago esango nuke: herri bereko bi lekutan badauz-

Esther Sound Sister

Ekitaldi kulturalak,
festak eta antzeko ekitaldietan musika jartzailea...

tickelsound@yahoo.es / ☎ 629 005 578

Antolatzailea: EHAZE

VI. "ESPERIENTZIXAK"
EUSKAL ANTZERKIAREN
MEMORIA HISTORIKOA

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean
Apirilaren 30ean, 19.00etan

Mahai-ingurua: M^a Karmen Gil Fombedilla,
Ixabel Etxeberria, Patri Urkizu

Moderatzailea: Jaime Valverde

Irakurketa dramatizatua: Maite Arrese, Kepa Errasti



“Baratzezaintzari buruzko informazioa hemengo pentsamoldearen arabera biltzea eta prestatzea beharrezkoa zen, ikaragarritzko gabezia dago eta; *Bizi Baratzea* liburuarekin pauso hori eman dugu”

kagu bi baratze, batetik bestera egoera alda daiteke. Uste dut liburuaren sarreran esaten dudana lehen gauzetakoa dela: liburu bera baino garrantzitsuagoa da, baratzean hasi behar dugunean, kaier bat eta arkatx bat izatea. Eta gertatzen den eta egiten dugun guztia jasotzea, idaztea. Bizpahiru urtean ikaragarritzko informazioa izango dugu.

Baratze bakoitza mundu bat dela, alegia.

Eta baratzezain bakoitza ere bai. Elkarri lagundu ahal badiogu, eta lur bakoitzaren historia jaso... Uste dut liburu hau bidaia baten hasiera dela, iruditzen zait gaur egungo baliabide teknologikoek ematen dizkiguten erraztasunak aprobetxatu beharko genituzkeela euskal baratzezainen halako unibertso berri bat sortzeko. Eta unibertso horretan norberak bildutako jakintza partekatzeko.

Hasieran aipatu duzun baratzeraren itzultzeko grina hori, zerk sortu du?

Krisiak zeresan handia dauka; gure jendartearen krisi guztiek, esango nuke. Ekonomikoak, jendarte ereduaren krisiak –jendea bakartuta bizi da–, jende asko gaixo egoteak, ez agian medikuak baja emateko moduan, baina bai psikologikoki, emozionalki... Hori dena elkartuta, baratzearekiko grina hau hozitzen da. Gainera, gaur egun modernoa da baratzean aritzea, udalek lurrak jartzen dituzte, baratze komunitarioak sortzen ari dira, kontsumo taldeak garrantzia hartzen ari dira... Tokian tokikoa izateak eranstean duen kalitateari, ekologikoari, kutsadura gutxi sortzeari... gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio.

Liburuak huts-hutsetik hasteko balio du.

Bai, ezer ez dakien kaletar petoenarentzat

balio du. Nahi nuke liburu honek balio izatea ezer ez dakienari baratzea izateko gogoia pizteko, eta bestetik, baratzean ari den horren jakintza zabaltzeko, beste gauza batzuk, beste era batera, egiteko. Zergatik ez ditugu zainzuriak egingo Altzan?

Batzuek diote ARGIAko Landareak sailak eduki zezakeela beste izenen bat, landareen aitzakia-rekin edozertaz hitz egiten duzu eta. Ez beti landareez.

Beti hitz egiten dut landareez. Dena da landare. Den-dena, ezagutzen dugun guztia, lore batetik dator. Lorerik gabe ez litzateke ezer existituko. Lorea etengabe gurtu beharko genuke. Orduan, edozein gauzaz ari garela landareez hitz egiten ari gara. Nik alderantzizko jokoa egiten dut: landareetatik abiatuta edozertaz hitz egin. Nire gai gustukoena etnobotanika da; hau da, landareek jendartearen historian, garapenean, kulturean... daukaten garrantzia. Artikuluetan pertsonen hitz egiten dut beti, baina gure inguruaz eta gertatzen zaigun guztiaz hain ikuspegi antropozentrikoa daukagu, benetako gauzez ahaztu egiten baikara. Eta ni saiatzen naiz hor atzean dagoen landaretxo hori gogorarazten.

Horregatik diozu *Bizi Baratzea*-ren hasieran landareak badirela nor.

Noski. Pertsonak baino lehenago dira nor, izan ere. Guk zenbat milioi urte daramagu hemen? Pare bat, gehienez? Gure hizkuntzak zenbat mila urte daramatza hemen? Aldiz, berriki artikulu batean aipatu ditudan azaribuztanak orain dela 300 milioi urteko baso garrantzitsuenak ziren. 300 milioi urte! Eta hemen daude. Landareak badira nor, dudarik gabe, eta liburuaren lehenengo esaldia, ezertan hasi aurretik esaten dudana, horixe da. Barazkiez banan-banan hitz egiten dudana atalean, baratzeak ondo funtzionatzeko oso garrantzitsua den zerbait esplikatzeko: zein zeinen aldamenen jartzea komeni den. “Nor norekin” da atal horren izena. Hizkuntzaren inguruan lan egiten duen lagun handi batek, irakurri zuenean, esan zidan: hemen, teoriarik, “zer zerekin” jarri beharko zenuke, eta ez “nor norekin”. Ni sutan jarri nintzen. Nola? Nor, gu baino lehenago dira! Zer izango ginateke gu landaririk gabe? ■

Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

mugarik ez

Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

ARGIA astean behin jasotzeko aukera:
hilean 12 euro baino ez*

ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:
hilean 7 euro baino gutxiago **

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:
hilean 4 euro baino gutxiago ***

*ARGIA astero: 145 euro urtean.
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

** ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

*** ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**



MADDI SOROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Pertsona helburu eta AHT kontrajarrita

MAIZ ENTZUTEN DUGU gure Jaurlaritzak “pertsona(k) helburu” dituela eta horrek izan behar luke edozein gobernuaren xedea. Baina tamalez, berehala ohartuko gara errealitateak gezurtatu egiten duela. Bestela ikusi noren aldekoak diren Espainiako Gobernuaren erabakiak: aberatsak gehiago aberasteko, egunetik egunera txiro eta aberatsen arteko alde ekonomikoak areagotzen ari baitira; berdin esan dezakegu EBko Batzordeak multinazionalak sustatzeko AEBetako ordezkariekin negoziatzen ari den hitzarmenaz.

Eusko Jaurlaritzaren eslogan hori gezurtatzeko arrazoi bat ditzosozko AHT dugu. Izan ere, berriki argitaratu du FEDEAk ikerketa bat AHTri buruzkoa eta datuak susmatzen genuen bezalatsukoak dira. Laburbilduta, Espainiako Estatuko AHTko ibilbide guztiak defizitarioak dira: ustiapen sarrerek inon ez dituzte estaltzen kostu orokorrak. Eta FEDEA ez da ekologisten antolakundea, baizik Banco de Españak eta hamabi espainiar enpresa erraldoik osatutako fundazioa.

Eusko Jaurlaritzaren eslogan hori gezurtatzeko arrazoi bat ditzosozko AHT dugu. Izan ere, berriki argitaratu du FEDEAk ikerketa bat AHTri buruzkoa eta datuak susmatzen genuen bezalatsukoak dira. Laburbilduta, Espainiako Estatuko AHTko ibilbide guztiak defizitarioak dira

Bertan diote AHT errentagarri izateko urteko 8 milioi bidaiari behar direla eta ibilbideak 500 kilometro inguru. Espainiako Estatuan Bartzelona Madrilekin lotzen duena errentagarriena den arren, halere, inbertitutako euro bakoitzak 0,46 euro sortuko ditu, nahiz 6 milioi erabiltzaile izan. Sevilla Madrilekin lotzen duen ibilbidean inbertitutako euro bakoitzak 0,11 euro sortzen ditu. Beraz, ustiapen zorrak zergadunoi egotziko zaizkigu. Kontuan izan Madrilgo probintziak 6,5

milioi biztanle dituela, Bartzelonakoak 5,5 milioi eta Sevillakoak 2. EAEk, berriz, 2,2 erabiltzaile potentzial ditu. Gure AHT errentagarria izateko ez dakit nondik aterako duten 8 milioi erabiltzaile.

Halaber, azpimarratu behar da munduan AHTren hiru ibilbide bakarrik direla errentagarri: Frantziako Estatuan Lyon-Paris, Tokio-Osaka Japonian, eta Txinan Jian-Quingdao. Haatik, ez da harritzekoa herrialde aurreratuek AHTrak ez edukitzea, eskandinaviarrek bezala, edo oso kilometro gutxi, Herbehereek, Suitzak edo Alemaniak lege. Frantziarrek eta britaniarrek zalantzak dituzte bide berriak eraikitze. Espainiako Estatua, bien bitartean, biztanleko kilometro gehien duen herrialdea da, eta mugarik ez berriak egiteko.

Ondorio ekonomikoei buruz, industriaren gain ez du aparteko eraginik, bai ordea zerbitzuen gain, horiek gehienak Madrilén kokatuko lirakeelako handik kualifikazio handieneko zerbitzuak eskaintzeko. Ez da ahaztu behar Espainiako agintari zentralisten xede nagusietako bat estatuko ardatz oro Madriletik pasatzea dela. Oro har, deszentralizatorik ere ez luke sustatuko tren garesti horrek.

AHTk badu beste ondorio bat. Izan ere, inbertsio horien bidez errentaren banaketa gauzatzen da. Enpresariak eta diru-sarrera altuko pertsonak dira gehien erabiltzen dutenak, eta bien bitartean tren arruntak errenta apaleko pertsonentzat dira. Halaber, tren mota horientzat aurrekontu murriztagoak izango dira eta zerbitzu kaskarragoak eskaini. Gainera, erabiltzaile horien errentaren zati bat, zergen bidez, AHTren zorrak finantzatzeko esleituko da.

Zeregin badago, erdi egina daukagun azpiegitura erraldoi eta defizitario horrekin. Alde batetik, gure agintariei hankak lurraren gainean ipinarazi eta gero, ahal den heinean, EAEko herriak hobekiago komunikatzeko erabili, hori izango baita “pertsona(k) helburu” aintzakotzat hartzea, ez ordea norbanako batzuen patrikak betetzea. ■

KOMIKIAREN NARRATIBA2

elipsea: bi biñeten artean gertatu dena



JON ANTZA
BAIONAKO
GELTOKIAN



TOLOSAKO
KARRIKETAN
HAMAHA
EGUNEN BURUAN

GELTOKIKO
OKAMEREN
IRUDIAK
EZABATU EGIN
DITUZTE

Flaxbaka: atzerako jauzia

TARTE HORRETAN 2 ESPAINIAR POLIZIEK IASTERKA
ALDE EGIN DUTE TOLOSAKO HOTEL BATETIK, ARMAK
BERTAN AHANTZIRIK

Flaxforwarra: aurrerako jauzia

JON ANTZAK 11 EGUN EMAN DITU OSPITALEAN,
GERO HIL EGIN DA
10 HILABETEZ KONTU DUTE GORPUA, FAMILIARI
JAKINARAZI AITZIN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Etsipenez eta amorruraz

PÚBLICO egunkari digitalean irakurria: Guardia Zibileko zuzendaria Guerrilleros de Cristo Rey taldekoa izan omen zen, Ferrolen, 70eko hamarkadan. Hainbat lekukok salatzen dute artikuluan, izen-deiturekin salatu ere. Garai horiek ezagutu genituenontzat, salaketa guztiz sinesgarria da; gutako askok antzeko lekukotasunak emango lituzke hemen bertan kate, palo eta inoiz pistolaren batekin ibiltzen ziren talde ultraeskuindar horiei buruz. Berdin azalduko genuke nola agertzen ziren manifestazioetan edo ekitaldi publikoetan, kolpeak banatuz eta jendea beldurtuz. Edo nola egiten zieten eraso pertsona bakartuei, esbistikak militanteen larruan labanaz eginda. Edo nola suntsitzen zituzten (eta dituzten!) gustuko ez duten ideologia politikoaren aldeko monumentu, agerpen, edo sinboloak oro.

Berdin azalduko genuke sekula ezin zela ezer frogatu, ezin izan zela ezer egin haien aurka, zigorgabetasun osoz ari baitziren; Estatuaren indar errepresiboen babes osoarekin ari zirelako, jakina.

Orain irakurtzen dut *Público* ematen duen berria eta tristura alimale batek bereganatzen nau. Ez, ez

da anekdota bat. Ez, ez da kasualitate bat. Denok dakigu zer den, izendatzen ausartu ohi ez bagara ere.

Urteak joan, urteak etorri, iraultza teknologiko oso

bat gertatu da, aldatu dira gauza denen eta gu denon itxurak, estatu berrien sorrerak mapak itxuraldatu ditu, indar-harreman bestelakotuetatik nazioartean hitzarmen berriak jaio dira... baina faxismo espainiarrak hor dirau, estatuaren muinari atxikia, goroldioa harriari legez.

Eta hau dena diot atzoko *Berria* egunkariak ekarri zuen albisteak barren-barrenetik ukitu ninduelako: Joan Mari Torrealдай, zerbait bada guretzat, duintasun eta zintzotasun intelektualaren ikurra da. Ohiko interes material pertsonalen gainetik ari denari zor zaion autoritate moralaz jantzitako erreferente bat.

To, zer diren gure erreferente moralak torturatzaile batentzat: erregela batekin nahi erara zirikatzen ahal dituen testikulu bi.

Eta antza denez, berrogei urte geroago, inork ezin dio horri erremediorik jarri. “Agenda politikoan” beste gauza batzuek dute “lehentasuna”. ■

Iraultza teknologiko oso bat gertatu da, aldatu dira gauza denen eta gu denon itxurak, estatu berrien sorrerak mapak itxuraldatu ditu, indar-harreman bestelakotuetatik nazioartean hitzarmen berriak jaio dira... baina faxismo espainiarrak hor dirau, estatuaren muinari atxikia, goroldioa harriari legez

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Joko nuke

ZINEZ aspertzen direnak badira. Behialako ihizi-saioetan higitzen ziren testosterona isuriak, basurdearen, azeriaren edo oreinaren atzetik. Denborak aldatu dira eta gehienok pantailaz pantaila gabiltza dagoeneko, eta ez bakarrik *Goenkale* sailaren azken atalak ikusteko. Alex Wellerstein amerikarrak zartatze nuklear birtualak, amesten ditugun lekuetan eragiteko Nuke-map izenarekiko gunea ireki zuen 2012an.

Areva multinazionalak nuklearraren alorrean diru-galtze ikaragarriak dituen unean jokoak ezagupena lortzen du. Sarraskiaren tokia hautatzen duzu, ere-

muaren hedapena, hil eta zauritu kopurua eta jo, botoi gorria zapatu dezakezu Stanley Kubricken *Docteur Folamour* filmean bezala. Halaber, orain arte gertatu atomoaren istripuak errepikatzen ahal dira letania morbidoaz gozatuz: Hiroshima, Maralinga, Txernobyl, Fukushima...

Eztia da herioa behatz soilez zabaltzea eta nuklearra ez dela hain lanjerosa ondorioztatzea. Atomoaren dantza, funtsean, fantasma lizuna delako, estatuak eta garapen xedeak urtzen dituen histeria erakargarria.

Autosuntsiketaren fazinazioak dirau, suntsitua bestea den ber. ■



Jose Ignazio Ansorena

✦ TXISTULARIA

Euskal abestien eufonia

EUSKAL ABESTIEN PARTITURETAN, herriko zein egile-dunetan, maiz testuak ez dira zuzenak. Bakarkako kantarien edo abesbatzetakoen lana eragozten duten hamaika akats izaten dituzte. Honez gainera, bada beste nahaspila iturburua: idatzitako hitzen ahoskera.

Abestien sonoritatearen ederra alderdi musika-lean dago, dagoenez, baina hitzen ebakieran ere bai. Gaztelaniaz, edonork uler dezake XVI. mendeko madrigalak *yeismo* kantatzeak kalte egiten diola interpretazioari. Operan aritzen diren bakarrekoez ere ongi ikasten dute hainbat hizkuntza ahoskatzen ari hunkigarrienen emozioa modu eraginkorrean komunikatzeko.

Gurean, *Hator*, *hator* kantatzeko garaian, nola abestu, *daigun* edo *dezagun*? *Ikusiko dake*, *ikusiko dek* edo *ikusiko duk*? Nola ahoskatu, *yatera* edo *jatera*? *Ama ere*

Herri giroan, sagardotegian edo parrandan ez dago ezer eskatzerik. Goi-mailako kontzertuetan, ordea, ahotsaren koloreari, tonuen gozatzeari, fraseoari, hainbat hizkuntzaz ongi ebakitzeari arretaz erreparatzen zaiolarik, euskaraz ere gutxieneko mailari eustea eskatu beharko genuke abestien mami artistikoa indar osoz geureganatu ahal izateko

poz-atseginez edo *Ama're poz-atseginez*? Askok *Amaren poz-atseginez*, niretzat inongo poz-atseginik gabe.

Batzuetan saltsaren jatorria abesti beraren zabal-kundean dago. Inguru txiki bateko abestia, Durangaldeakoa kasu honetan, Euskal Herri osora zabalduta. Lehenago ere gertatu dira horrelakoak eta *Andre Madalen* lapurteraz edo *Agur Xiberna* gipuzkeraz kanta izan dira, arrakasta seinala. Baina koherentzia abesti osoan mantendurik, ez egungo nahas-mahasean.

Herri giroan, sagardotegian edo parrandan ez dago ezer eskatzerik. Goi-mailako kontzertuetan, ordea, ahotsaren koloreari, tonuen gozatzeari, fraseoari, hainbat hizkuntzaz ongi ebakitzeari arretaz erreparatzen zaiolarik, euskaraz ere gutxieneko mailari eustea eskatu beharko genuke abestien mami artistikoa indar osoz geureganatu ahal izateko.

Musikenez prestatu beharko luke honetan lan txukuna eta kantu ikasleei edo abesbatza zuzendariei irakatsi, bestela inork ez duelako egingo. Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia da Musikene. Sarri aritzen naiz bertan ikasitakoekin elkarlanean eta esan dezaket kalitate handiko musikari gazteen harrobi bihurtu dela. Kantari edo jotzaile izan, zuzendari edo konpositore, klasikoan, jazzean, garaikidean zein roc-kean gure artean inoiz ez bezalako musikari trebatuak ateratzen ari dira bertatik. Euskaldunak asko. Aipatutakoaren eskasia, ordea, behin baino gehiagotan sumatu dut eta bideratzen hastea eskertuko litzateke.

Horrela Pablo Sorozabal, esaterako, ez litzateke bere hilobian haserretuko *Gabiltzan kalez-kale umore onian* (ez *onean*) entzutean. ■

Erdibana

Maiatzak 9, larunbata, 22:00tan

Usurbilgo Sutegiko auditorian

Txalok aurkeztutako antzezlan

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea

Sarrerak:

Lizardin (Usurbil) 8 € aldeztu aurretik,

10 € egun berean (lehiatilan).

Antolatzaileak:



Babeslea:



Danele Sarriugarte ♦

IDAZLEA



DANI BLANCO

Tabako bila

IRAKURRI BERRI DUDAN *Hain gutun luzea* (Mariama Bâ/Iokin Otaegi) eleberriak zer pentsatua eman dit poligamiaren inguruan, hainbat herrialde musulmanetan tradiziozko praktika den horren harira astindu desexotizatzaile ezin osasungarriagoa eskaintzeaz gain, aurreikus nezakeenaren oso bestelako zerbait aurkitu baitut Bâ-ren nobelan, bigarren ezkontza legezkoa gorabehera, zeharo arrotz suertatu ez zaidan gertaera-segida bat: Ramatulayeren senarra, adin ertainera iritsita, andre gazteago bati lotzen zaio. Ahal duelako, dirua daukalako eta hain zuzen horrek alda deza-keelako andre gaztearen pobrezia-patua.

Ramatulayeren ezkon-harremana ez zen bereziki desastrea, ez emaztea txolin zapaldua, ezta senarra ere munstro misogino bat; aitzitik, komedia erromantiko tradizional baten tankera har zezakeen bikotearen istorioak, aise asko: biak ikasiak eta klase onekoak eta Senegalen burujabetzaren aldekoak deskolonizazio garaietan, elkar desio eta maite zutelako engaiatuak, gurasoen kontrako iritzi zenbaitzuei aurre eginda. Eta, hala ere, aski ez.

Tabako bila joan eta sekula itzuli ez zirenen istorio asko etorri zaizkit akordura. Zigarreta-kaxaren eufemismoari beren-beregi egina bezala deritzot, monogamiaren haustea islatzeko, hain justu ere tabakoa orain gutxira arte oso egon delako gizonei lotua, andre askorentzat matxinadazkoa izan delako erretzea, besteak beste hortzak horitu eta edertasun santuari kalte egiten diolako. Baina gogoia makal utzi nau oroitzapen errenkadak, nahi baino andre erretzaile gutxiago agertu zaizkidalako eta tabako eroslearen zain askotxo, osterantzean jende-modu indartsua izan arren umiliazioari zelan

erantzun ezin asmatuta, edo ezinduta, besterik gabe, arrazoi ekonomikoengatik, edo seme-alaben mende-kotasunagatik.

Ramatulayek bihotz emanda beste tabako istorio bat etorri zaidan arte.

2001. *The Corrections* eleberria (Jonathan Franzen). Denise sukaldari arrakastatsuak, lan egiten duen jatetxeko nagusi erakargarri, zoriontsuki ezkondu eta *pater familias* berdingabearekin flirteoan dabilela, horren emaztea ezagutzen du, andre kaotiko eta maitagarri bat, noski Denisez inolaz ere fio ez dena.

Denisek ere ez du sobera gustuko, oztopotzat hartzen du, bere bizitza gainontzean itzelari falta zaion maitale liraina lortzeko oztopo, maitalegia zalantzati baitabil, ez aurrera ez atzera, nahi duela argi iradokiz baina egiatan ezer egin gabe, eduki badaukan segurtasun epel eta txepela galtzeko beldur, ziurrenik. Denise tipoaren etxean sarriagotan agertzen hasten da, lanaren aitzakian, harraparitza baitu bere burua, eta bere eskuetan egoera mugimendurik ezetik ateratzea. Baina zenbat eta emaztea sakonago ezagutu, orduan eta jakin-min gutxiago sortzen dio nagusiak, eta orduan eta argiago ikusten du akaso tipoa bera dela harraparia, akaso Denise bera dela tipoaren familia bizitza orbainik gabeari falta zaion maitale liraina. Eta hori bai ezetz.

Azkenean, beraz, emazte kaotiko baina maitagarriarekin endredatzen da Denise, eta txortan sutsu egitera emanda igarotzen dituzte bizpahiru hila-bete, sexu-pasarte esplizituak leitzeari lotuta irakurleak hogeitaka orri, emakumeen arteko harreman afektiboak nolabait espiritualagoak direla gezurtatuta, eta konplizitate hori dena haragira ekarrita, atzamar eta mingain aseezinetara.

Pasioaren bestondoa aurkitzen ditu senarrak, artean hatsanka eta larru hutsean, zigarro banari zupaka. ■



Antton Olariaga



Mikel Artola



Sorterriko galderak

Izan dolu, izan festa
ospakizun nahiz protesta
mende oso bat iraganen dut
sorterriari galdezka.

Olatuak aparretan
naufragoen mesedetan
zeren egarri ote gabiltza
botilako mezuetan?

Iraganari begira
etena ala segida
goian, behean ala ertzean
euskalduna non bizi da?

Buruan eskuez hazka
azkenean harramazka
nor da galtzaile, nor irabazle
bukatu al da gatazka?

Hitz hutsak telebistetan
zaurituak albistetan
noren ahotik, noren lepotik
aritzen gara hizketan?

Bizirik gaude halare
eskola-ume herabe
altxa eskua, nork izan nahi du
bere buruaren jabe?

Ganbelako behi antzua
iraganaren zantzua
ukuiluetan aurkitu ote
liteke honen zentzua?

Aitonaren gazta ona
irratietako sona
zein da moderno zein zaharkitu
Kalakan ala Madonna

Ordutik ordu, unez une
jolasean hiru ume
kantuak bihur ote lezake
konplikatu zena xume?

Ahots hutsarekin deman
euskaldun zaharron teman
altabozak noiz jarri zituzten
historiaren tabernan?

Aire zaharrak iparretik
ekaitz berriak hegotik
zorabiorik gabe irtengo
al gara zurrunbilotik?

Zenbat gara bat, zazpi, hiru?
hizkuntza bat da testigu
gureaz asko hitz egiten da
besteenaz zer dakigu?

Guztiok gara nomada
Senegal, Peru, Sahara
nola ekarri behar ditugu
gu hurbiltzen ez bagara?

Argizaiola opari
zergatik ez eman hari
*euskari*aren zubia eraiki
zuen arkitektoari?

Konplexuekin akabo
maitasunari lau trago
sufritzen jada aspertu gara
goza al daiteke gehiago?

Doinua: Oihaneko pagoak blai.

HUHEZIK antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoan jarritako sorta.

Panfletotik harago, nola kantatu politikoki?

Kantu politikoak ezaugarri eta gaitegi jakin batzuekin lotu izan dira betidanik Euskal Herrian. Eskema horiek oraindik indarrean badaude ere, bestelako apustuak agertzearekin bat mahaigaineratu da musikan eraldatzaile izateko moduei buruzko eztabaida. Orain eta hemen politikoki kantatzerakoan zeri erreparatzen dioten azaldu dute Andoni Tolosa Morauk, Pottors ta Klito taldeak, Ibon Rodriguezek eta Maite Arroitauregi Mursegok.

| KEPA MATXAIN |

LARRIALDI UNEETARAKO kantu politikoak egin asmoz agertu zen Espainiako musika panoraman Fundación Robo kolektiboa, duela lau urte. Hura osatzen zuten musikarrien ahotan, mezu argi bat: modernitatearekin bat politikaz kantatzea itsusitzat jo zela, politika ulertuta zentzu hertsiegian –auzi konprometituez modu agerikoan kantatzea–, eta gisa horretako kantuak bezain politikoa dela itsas bazterretik bizikletaz egindako arratsalde-pasa mintzagai duena. Funtsean, kantu oro dela politiko; *establishmenta* auzitan jartzen duen ala hura indartzen duen erreparatzea, gakoa. Eta, gauzak horrela, kantuetan politikaz hitz egi-teari beldurra galdu behar zaiola.

Fundación Robok Espainiako musikagintzari egindako kritika horrek nekez balio du Euskal Herrirako, ordea. Hemen, egun, auzia da ez ote gabiltzan gertuago beste muturretik, 80ko hamarkadako inertzia batzuei segika, mezu politiko jakin batzuk esplizituki eta era masibo samarrean kantatuz, deus eraldatzailea bailitzan. Hala iruditzen zaio, behintzat, Andoni Tolosa *Morauri*: lehen iraultzailea zena kasik *mainstream* bihurtu dela Euskal Herrian, eta, hortaz, bere indar iraultzailearen potentzialitatea galdu duela. Izan ere, oraindik “kantu politikoak” hitz elkarketa Morauri mesfidantza eragiten dioten ezaugarri jakin batzuekin lotu ohi da bazterrotan. “Topiko-koz betetako kantuak egiten dira, eslogana bilatzen dutenak esanahia beharrean. Hainbesterako, askotan zalantza egiten baituzu ea musikari hori benetan ari den, ala, erosotasunez, gizartean nagusi den bidea baino ez duen hartzen”. Guztiz bat datoz Pottors ta Klito taldekoak ere. “Taldea panfletario asko dago”, diote, “salaketa egiten dute letertan, hori egiteak salgarriago bilakatzen dituelako eta zen-



bait gunetan kontzertuak jotzea bermatzen dielako. Sarritan, ordea, ez dute hitz horiekiko oso era koherentean jokatzeko”.

Euskal Kantagintza Berriko protesta kantutak, Euskal Rock Erradikalaren lelo zuzenak... hemen kantu politikoak betidanik lotu izan dira gatazkaz aritzearekin. Joera hori ulertzekoa den arren, Morauren ustez, beste gai asko albora utzi dira. Pottors ta Klitokoek nabaritzen dute garai berriotan hainbat talde hasi dela beste gai batzuk politikotzat jotzen, harremanak, kontsumoa edota sexualitatea, esaterako. “Aspalditik ezagunak zaizkigun borroka euskaltzaleari, antikapitalistari edo antiarrazistari batu zaizkie beste batzuk, feminista edo animalista, adibidez”. Iruditzen zaie konplexutasun politiko horrek asko aberastu duela musika eszena, baina oraindik bide luzea dagoela egiteko. “Norbaite animatuko al da Euskal Herrian queercore talde bat sortzen?”, bota dute itauna airera.

Galderak, badira gehiago ere. Inoiz baliagarri izandako hainbat formula zukutzearen zukutzeaz agortuta daudela dirudien garaio-tan, nola kantatu politikoki? Nola egin musikalki apustu eraldatzaile bat? Ze ezaugarri irreparatu kantu politiko onak egiterakoan?

Erantzun borobilik ez da agertuko lerrootan, ziur asko. Zantzuren bat edo beste, izatekotan.

Hemen kantu politikoak beti lotu izan dira gatazkari buruz aritzearekin eta, ulertzekoa izan arren, beste gai batzuk alboan uztea ekarri du

Ironia eta umorea

Maite Arroitauregi *Mursegori* zaila egiten zaio hitz esplizituki politikoak egitea panfletoan erori gabe. Horregatik, hitzetan baino, bestelako hautuetan ezartzen du bere jardunaren pisu politikoa. Dena dela, kantu politiko baten hitzak interesgarri bihurtzeko bi osagai bururatzen zaizkio: ironia eta umorea. Azken aldian entzun duen diskorik politikoe-na Morau eta Beñardoren *Arrainentzako himnoak* iruditzen zaio, hain justu ere, gizartearen kronika umorez egiteko duten abileziagatik. Disko horretako kanturik onena, oster, *Hondarribia 2012*: “Filma bailitzan kontatzen du alarde egun bat”.

Rodriguezek ere sumatzen du faltan ironia eta umorea, norbere lanarekiko bereziki. “Sakontasun eta nahikeria larregi dago euskal musikan”, dio. Berak ez dio hitzari ia garrantziarik ematen. “Onartzen diodan pisu bakarra ez dagokio hitzaren mezu

semantikoari, baizik eta sakonagoko ezaugarri: hizkuntzaren, hitzen eta silaben aukeraketa, erabilitako erregistroa eta ahoskera, aho-tsaren erabilera...”. Hortaz, hitz abstraktuak erabiltzen dituzten taldeak, musikarekin batera irudiak edo sentsazioak sorrarazten dizkiotenak, zaizkio eraldatzaileenak. “Tradizioagatik estilo batean espero ez dituen hitzekin topo egiteak ere liluratzen nau”.

Topikoetatik ihes

Kantu politiko on bat egin nahi duenaren lehen kezka topikoetatik ihes egitea izan behar du Morauren ustez, kontatu nahi duena modu interesgarri batean kontatzea.

Horretan saiatu zen Mursego, adibidez, *Cumbia villera de la ciudad armera* egin zuenean.

“Kumbia bat egin nuen, mende-baldean joera dugulako hegoalde-tik



ERDIKO KAIERA • NOLA KANTATU POLITIKOKI?

datozen genero guztiak –bachata, reggae-toia...– gutxiesteko. Kantu horren bidez immigrazioak dakarrena aldarrikatu nahi nuen, kanpotik etorritakoa geurea bihurtu”.

Louise Bourgeoisen *Otte* poemaren bertsioarekin, osteria, hizkuntzaren baitan –agerian ala ezkutuan– dauden matxismo eta mikromatxismoak salatu nahi izan zituen. Bestalde, gertatu zaio hasiera batean batere asmo politikorik gabe egindako zenbait kantuk ondoren irakurketa politiko oso garbiak edukitzea, *Europa zaharreko banpiroen gudak* edota *Donki Kongik*, kasurako.

Koherentzia

“Kantatzen duenarekiko musikariak duen koherentzia dago eraldaketaren gakoa”, diote Pottors ta Klitokoek. Alegia, mezua ez dela hitzetara soilik mugatzen, haiek bezain garrantzitsuak direla, esaterako, taldekideen arteko harremana, taldeak entzuleekin eta beste musikariekin duen hartu emana, taula gaineko, atzeko eta azpiko jarrerak eta rolak, hizkuntzaren hautua, parte hartzen duten kontzertu eta jaialdien izaera...

Rodriguezi bururatzen zaizkio gehiago: diskoaren azala, banaketa, kantua eskubide komertzialak, euskarria, saltokia, prezioa... “Faktore horiek guztiak kantatzen den mezua bezain garrantzitsuak dira. Eta baliteke ondorio horretara heldu izana, atal horien artean desoreka handiak nabaritu izan ditudalako”.

Iritzi berekoa da Morau. “Sortzaileok, pertsona publiko gisara, mezu politikoa jarreretara eraman behar dugu. Ezin du lubakirik egon kantatu, esan eta egiten dugunaren artean”. Mursegok ere erabaki txiki horien bidez ematen dio zentzu politikoa bere jardunari: diskoak argitaratzeko eta zabaltzeko modua, prezioa, zuzenekoetan transmititzen duen energia, lanarekiko konpromisoa... erabaki politikoak, guztiak ere. Zer politika motakoak diren, ordea, entzuleak erabaki behar du, Rodriguezen ustean: “Musikariaren erabakiek interpretazio asko izan ditzakete, baita hasieran zituen asmoen guztiz kontrakoak ere. Argi dudana da prozesu osoak duela eragina irakurketa horiek egiterakoan, musika ez baita noten eta soinu kateatze hutsa”.

Musikalki eraldatu

Hitzak garrantzitsuak direla dio Morauk, baina gehiegitan gutxiesten dela kantua beste osagarri nagusia: musika. “Musikarena, ordea, oso hizkuntza abstraktua da, eta zailagoa da haren gaineko diskurtso politikoa formulatzen”. Hala

ere, nabarmena iruditzen zaio Euskal Herrian musikalki egiten den diskurtso kontserbadorea. “Kantagintzaren eduki politikoa pobretzen du horrek, eta pena da, indar eraldatzaile handia suma daitekeelako musikarien artean”.

Gizarte gazez ez hitz egiteak ez du zertan haiek saihestea esan nahi, Pottors ta Klitokoek arabera. Kantu bat izan daiteke, adibidez, estetikoki apurtzailea. “Zer da Mikel Laboaren *Baga, biga, biga*, aliterazio hutsa, ala harago doa?”, galdetzen dute. Mursegok ere antzera pentsatzen du: “Egun gustuko den ditudan euskal taldeek ez dute, oro har, gizarte arazoei buruz hitz egiten. Lehengoek bai: Dut, Bap!, Anestesia, Balerdi Balerdi, Ciclos Iturgaitz edo Joseba Tapiak bazituzten aldarrikapen kantuak”.

Euskanta eredu

Rodriguezi bururatzen zaio zein den euskal munduko apusturik eraldatzaileena: *Euskanta*, Erromako hainbat ikastetxetan martxan den egitasmoa. Bertako haurrek poema bana idazten dute italieraz, eta Alex Mendizabal musikari eta Associazione Culturale Euskarako

kideak euskaratu egiten ditu. Ondoren, musika tresna bana hautatzen dute umeek, eta hura joaz, zati instrumentalak grabatzen dituzte. Azkenik, ahots doinuak inprobisatzen dituzte zati instrumentalaren gainean, euskaratutako poemetako hitzak baliatuz.

Rodriguezen ustez, *Euskantak* ederto erakusten du hitzaren balioa zein izan daitekeen, zein indartsua eta zein ahula aldi berean. Italieraz sortzen dute, eta euskaraz kantatu, euskaraz jakin ez arren. “Esanahi lausokoak izaten dira kantu gehienak, umeen jolasak. Baina Euskal Herriko hezkuntza sisteman haurrek ez dute kantu bakar bat ere sortzen. Ez al da iraultzailea?”. ■

Ez ote zaie kantuen hitzei garrantzi handiegia ematen, alderdi musikala alde batera utzita?

Taldekideen arteko harremana, taula gaineko jarrera, kantuen eskubide komertzialak... Kantatzen den gaia bezain politikoak dira erabaki horiek





Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarriketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Ukelele zaleen igandetako zita

Lehen begi kolpean jostailuzkoa irudi lezakeen lau sokako eta lepo laburreko instrumentuak protagonismoa berreskuratu du azken boladan, baita eszenatokietatik kanpo ere. Horren erakusgarri, ukedadak antolatzen dituzte Bilboko ZAWPen, ukelele zaleek taldean praktika hartu eta taldean gozatzeko asteroko topaketak.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

KANADAN 1960ko hamarkadan musika-irakasle batek proposatu omen zuen, ikastetxe guztiek flauta kendu eta ukelelea jo behar luketela; flauta ahoan ezin daitekeelako abestu eta abestu gabe musika gutxi egin daitekeelako. Hori kontatzen du Marcos Feijook, Bilboko ukedaden koordinatzaile eta ukelele irakasleak.

Hitz gutxitan, ukelele zaleen topaketak dira ukedadak. Bilbon iaz ekin zioten ostirale-tan elkartzeari eta aurten igande arratsalde-tako plana bihurtu dute. Kide gutxi hasi arren, taldea apurka handitzen ari da. “Saio batean zazpi lagun egon gaitezke eta hurrengoan hogeitaz. Jende artean jotzea atseginagoa zaientzat praktikatzeko da helburua”, azaldu du Feijook. Horretarako, abestien akorde eta letrak dituzten bideoak erabiltzen dituzte.

2012an “Ukelab” ukelele-laborategia sortu eta hilabete gutxira ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress) proiektua ezagutzean bertan klaseak ematen hasi zen Marcos Feijoo. Espazioak ematen dituen aukeren aurrean, ukedadak proposatu zituen –idea herrialde anglosaxoietatik ekarrita– eta ordutik ZAWPeko “Garabia” pabilioian gertatzen dira astero.

Ikasketa informalaren bila

Topaketan parte hartzen duten hainbatek aurretik beste musika-tresnaren bat jo izan dute, eta instrumentuari eskua hartzeko, ordu ugari pasa dute etxean bakarka. Horregatik, talde giroa, era askotako jendea ezagutzeko

aukera eta instrumentuaren soiltasunak ahalbidetzen duen ikasketa informala da ukedadetan bilatzen dutena.

Urteetan gitarra jo duen kide batek ukelelearen abantailatzat azpimarratu du nahikoa dela oinarritzko maila hartzea instrumentuarekin gozatzen hasteko. “Zentzu horretan, gitarra baino askoz aukera gehiago ematen du”, azaldu du.

Aitortu dute ez dituztela bereziki jarraitzen ukelelea jotzen duten musika-taldeak, nahiz eta orain arreta gehiago jartzen dioten tresnaren soinuari: “Erreparatzen jarrita, esa-

terako, iragarki edo pelikuletan giro ona lantzeko erabiltzen da ukelelea, bere soinuak irribarrean ateratzen duelako”.

Musika-tresnaren presentzia areagotuz doala nabaritzen dute eta ez dira tresnarekin entseatzeko elkartzeko diren bakarrak. Iruñean *mierKuleles* izeneko ukelele-topaketak egiten dituzte asteazkeneko, eta duela aste gutxi elkar ezagutze-

ko bilgunea bikoiztu zuten Iruñeko kideak ZAWPera gonbidatuta. Feijooaren arabera, “beste musika-tresnekin ez bezala, ukelelearen munduan nahiko hedatuta dagoen egitasmoa baita”.

Olatuaren goraldian

Euskal Herrian Mursego, Mugaldekoak eta Zeze Miega dira azkenaldian ukelelea taula gainera igotzen hasi diren musikarietako batzuk. Atzerrian lehenago hasi ziren noski, eta gorabeherak ere izan ditu musika-tresnaren ospeak.

Soinu exotikoa zeukan jostailu gisa hartua izan ondoren, azken urteotan ukelelea “benetako” instrumentu gisa hasi dira erabiltzen musika taldeak



Talde giroa eta ukelelea modu informalean jotzen ikasteko aukera bilatzen dute Ukedadetara hurbiltzen direnek.

1880an portugaldarrek Hawaiira eraman zutenetik, ukelelearen presentziak “olatu ugari” bizi izan ditu Feijooaren hitzetan. Orduetik, gutxi gorabehera hogeitertetik behin –1900, 1920, 1940 eta 1960ko hamarkadetan– protagonismoa irabazi, eta gero berriz eszenatik desagertu dela dio, egungo olatu berrira arte. Nazioartean jazo den gorakada dela dio, nahiz eta “hemen gitarrari egiten zaion gorazarreak” beste instrumentu ugari irizala egin.

Krisi ekonomikoak ere ukelelearen boom berri honetan eragina izan ote duen susmoa du Feijook: “Gitarren salmenta jaitsi denean,

saltzaileek ukelelea nahiko masiboki bultzatu dute, askoz merkeagoa delako”.

Gorakada orokorra, ordea, Eddi Vedder Pearl Jameko abeslariak 2011n *Ukelele songs* diskoarekin eragin zuela deritzo. “Horrek ekarri zuen *indie* edo folk anglosaxoia egiten duten musika-talde gazteek instrumentua benetakotzat hartzea, ez soinu hawaiiar edo exotiko gisa bakarrik”.

Ukeleleak beste mota batzuetako kantuetan ere funtzionatu dezakeela agerian gertatzen ari da, eta Feijook dioenez, hori da hain zuzen eurek egiten dutena, estilo guztietatik datozen kantuak joz. ■







Ekain berri



**Euskal
Kulturaren
sustraiak**

Sarrerren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

Haur literatura

Zorionak, Sator jauna!
Seve Calleja
Itzulpena: Xabier Monasterio
Irudiak: Carmen Aguirrezabal
Ibaizabal, 2014



Bidaia da helmuga

SEVE CALLEJAK hainbat eta hainbat ipuinetan ikusitako egitura errepikakorra erabiliz egindako ipuin sinple eta atsegina dugu *Zorionak, Sator jauna!* hau. Eta idazle bizkaitarraren lanetan ohituta gauden bezala, Xabier Monasterioren itzulpenari esker jaso dugu euskarazko bertsio hau.

Sator jaunak Satortxo ilobari deitzen dio telefonoz, Satortxo gazteak gogoan izan dezan osabaren eguna dela. Eta dei horren ondorioz ilobak bidaia bati ekiten dio osabaren etxera. Bidaia horren kontaketa dugu ipuintxo, nola Satortxok ez dion ezer eramaten osabari (ez zaio ezer bururatzen) baina bitartean bidaian zehar aurkitzen dituen lagun guztiak animatzen dituen osabaren jaira, eta nola hauek bai daramatzaten era askotako opariak.

Jolas hori dugu liburuko argumentuaren oinarria, Satortxok Ilegorri katagorriarekin egiten du topo eta bi lagunak bidean abiatzen dira Magu saguarekin aurkitu arte. Saguarekin batera hirurak martxan jar-tzean Berritsu satitsuaren okindegira doaz postrea egiteko irin bila. Eta ondoren kirikiñoa, kastorea... eta hainbat lagun elkartuko zaizkie, batzuk gonbidatuta, beste batzuk beren burua gonbidatzearen ondorioz: “Jai batera zoaztela diozue? Ba, zerbaite-rako behar banauzue, ni laguntzeko prest nago”, koadrila ederra osatu arte: “«Bat, bi, hiru, lau,...» saguzarra gonbidatuak kontatuz doa ahapeka. «A zer-nolako jendetza!», pentsatu du bere baitan. Tal-

dekideak horretaz konturaturik, nor bere burua aurkezten hasi da”.

Hirugarren pertsona orokojakilea dugu istorio honetako narratzaile, kontakizuna modu kronologikoan azalduz. Liburuko egitura, gainera, sinplea dugu; elkarrizketez osaturiko hoge kapitulu laburrez egituratuta dugu, irakurketa are errazagoa bilakatuz. Carmen Aguirrezabalen irudi koloretsu ugarik ere laguntzen dute argumentuaren haria jarraitzen eta istorioaren nondik norakoa hobeto ulertzen.

Ipuina, irakurleak espero duen bezala, Sator jaunaren etxean eginiko festarekin amaitzen da: “Orain badaude denak eta Sator Jaunaren urtebetetzea ospatzeko gogo bizia dute denek. Eta gero, jaki guztiak irentsitakoan, ibilaldiaren gorabeherak kontatuko dizkiote elkarri. Eta gero dantzan hasiko dira. Eta kantuz eta barrez arituko dira. Gau osoa dute primeran pasatzeko”.

Ipuin sinple eta arin irakurtzen dena dugu Callejaren hau; entretenigarria eta animalia ezberdinez osaturiko talde bitxia protagonista duen kontakizuna. Eta, hainbat lanetan ohikoa den bezala, helburua baino interesgarriagoa da bidaia. Sator jaunaren festa helmuga da, ipuina, aldiz, bidaia. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com



Azote kaldüz
Eskean Kristö

Baga Biga, 2015

Arratiatik rock-and-rolla

ESKEAN KRISTÖ Arratia bailara-ko (Bizkaia) taldearen lehen disko luze honek jarraipena ematen dio 2013an kaleratu zuen sei kantuz osaturiko lanari. Bide berari jarraituz osatu dute. Hau da, rock-and-rolla eta rock gogorra: gitarretan oinarritutako kantutak, riff eta punteo basatiak, eta erraz gogoratzeko diren leloak.

70eko eta 80ko hamarkadetakoko rock-and-roll eta hard rock estiloen espiritua bilatzen dute. Besteak beste, AC-DC, The Rolling Stones, Kiss, Guns N' Roses, Niko Etxart, Sixty Sexers eta Willis Drummond taldeen eraginak suma daitezke haien kantuetan.

2013an Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duen EH Sona lehiaketa eta Azkue fundazioak antolatutako banden lehiaketa irabazi zituzten, eta Azkue fundazioak eman zien sariak beren lehen disko luzea burutzen lagundu die.

Azote kaldüz diskoa Martxel Arkarazok grabatu, nahastu, masterizatu eta ekoitzi du Andoaingo Garate Studioetan, eta ilustrazioak eta diseinua Jon Artetxek egin ditu. *Latigo!* kantuan Niko Etxart maisuak jarri du ahotsa eta rock-and-rolla, taldekideek beraiek jakinarazi dutenez.

Pello Artabek (ahotsa), Alex Harillok (gitarra), Aritz Ontalvillak (gitarra), Peio Artetxek (baxua, harmonika eta ahotsak) eta Imanol Arresek (bateria) sortu dituzte kantu guztiak. Negar kantuko hitzak Uxue Apaolazaren *Umeek gezurra esaten dutenetik* liburuko testuetan oinarrituta idatzi dituzte.

Doinu indartsua eta trinkoa gauzatu dute, ederki ekoitzia. Taldekideek beren musika-tresnak trebetasun handiz erabiltzen dituzte, eta, gainera, hori guztia bizitasunez, gatz eta piperraz, alaitasu-



nez eta lotsagabe egiten dute. Taldekideak gazteak dira, 24 urteren bueltan daude denak, baina helduagoak direla ematen du.

Kantuetan, jositiziarik eza, ustelkeria, politikarien hipokrisia, pobrezia eta beste hainbat gairen inguruan mintzo dira, kaleko hizkeraz, gordin, oldarkor, trufa eginez, umorez eta lizun. Hitzak euskara batuan idatzita daude baina arratierazko hitz batzuk ere erabili dituzte. Entzuleek dena uler dezaten Geure berbategie izeneko arratiera-batua hiztegi txiki bat txertatu dute lanean.

Jendaurreko emanaldietan oholtzaren gainean ederki pasatzen du Eskean Kristö taldeak. Taldekidek barruan daukaten guztia ematen dute. Saio ikusgarriak egiten dituzte, eta ikus-entzuleekin bat egiten saiatzen dira. ■

Joxi Ubeda

Bartzelonan bai jakin



Irudi honekin iragarri dute aurtengo Literaldia. Hamaikagarren edizioa du Bartzelonako euskal literaturaren festibalak.

KONPARATZEA ERE, honetan, beste guztian bezala, katalanak aurretik: han Jordi bada norbait, pentsa, santua ere bai; are gehiago, President ere izan zuten bolarik da batez grazia hori zeukan gizontxoak –azkenaldian deklaratu gabeko sos batzuegatik problemetan omen dabil, baina guk horretaz ideia handirik ez, gu tronpeta jotzera etorri gara–. Harira, esandakoa, katalanek traineru batzuk ateratzen dizkigutela, ze hemen, Gorka izena baldin badaukazu –eta horretaz badakigu zerbait, txikitan Iñaki izan nahi genuen arren–, apirilaren 23an ez daukazu ez sosik Suitzan, ez santurik, ez libururik opari, eta arrosak jasotzeko aukera ez dago espektatiben zerrendan ere. Bartzelonan bai jakin.

Eta ez katalanak bakarrik, han dabilen euskaldunak ere listoxeagoak ote diren pentsatzen hasiak gara, Sant Jordiren buelta honetan urtero antolatzen duten Literaldia festibalak aurten osatu duen programazioa ikusirik. Ez egun bat, ez bi: hilabete osoa letraz josita dauka gure literaturak zazpi probintzietatik kanpo daukan jaialdi garrantzitsuenak. Kataluniako publikoarentzat ezagunak izango diren izenak osatzen dute kartelburua –Fermin Muguruzak *Black is Beltza* nobela grafikoa aurkeztu du 21ean eta Bernardo Atxagak solasaldia izan du Manuel Rivas galiziararekin Sant

Jordi bezperan–. Aurretik, hamaikagarren edizioaren itxaferoa bota eta berehala, literatura musikaren termomixetik pasata eskaini duten bi proposamen: apirilaren 10ean jaialdia inauguratzeko,

Bide Ertzean eta Metrokoadroka pasa ziren Bartzelonatik *Nola belztu zuria* ikuskizunarekin –Joxean Artzeren poemak kantatu eta errezitatu zituzten Euskal Etxean–; eta joan den larunbatean *Gosariak* egitasmoak hartu zuen lekukoa –Gose taldeak Joseba Sarrionandiaren testuekin eta Iñigo Arregi-Juan Luis Goikolea

artista tandemaren lanekin argitaratu du proiektua–.

Pasako da Sant Jordi, baina iraungo du Literaldiak. Hurrengo zitak dira: apirilaren 24ko bertso afaria –Euskal Etxean, 15 eurotan–, maiatzaren 7an egingo den *Pomes perdudes* katalanera itzulitako euskal ipuinen bildumaren aurkezpena; eta azken traka, datorren hileko 8an eta 9an: Iratxe Retolaza EHUKo irakasleak *Euskal komikiaren historia literario baterantz* hitzaldia eskainiko du. Biharamunean Esti Lizaso itzultzaileak eta Danele Sarriugarte idazleak *Erraiak* liburuaren itzulpenari buruzko esplikazioak emango dituzte eta pasarteak irakurri, euskaraz eta katalanez.

Eta guk ez daukagu pisurik Bartzelonan, snif. ■

Literaldia

Noiz: apirilaren 10etik maiatzaren 9a.

Non: Bartzelona.

Webgunea: literaldia.com

Gorka Bereziartua Mitxelena

Zergatik da ona zuntza jatea?

GAUZA JAKINA DA zuntz dietetikoak ez digula bitaminarik ez mineralik ematen, baina, hala ere, ezinbestekoa da gure nutrizioan, tumoreak prebenitzen, pisua zaintzen eta idorreria saihesten laguntzen digulako.

Zuntz dietetikoa ez da gure gorputzean digeritzen, ezta xurgatzen ere, baina osasun onerako ezinbestekoa da, 60ko hamarkadatik ondotxo dakigun bezala. Garai hartan ikusi zen Hirugarren Munduan ez zirela ikusi ere egiten gizarte gartuetan oso ohikoak diren gaixotasunetako batzuk, herrialde horietako dietak zuntz ugari duelako; mendealdeko herrialde aberatsetan, aldiz, azukre eta karbohidrato konplexu gehiegi kontsumitzen dira.

Zuntzaren jatorria begetala da beti; haren pektinak edo muzilagoak uretan disolbagarriak diren ala ez, halakoak izango dira zuntzaren ezaugarriak:

- **Zuntz disolbaezina.** Hestetako iragapena errazten du, digestioa egin bitartean ura “harrapatu” eta janari-boloa gelatina moduko zerbait bihurtzen baitu. Era horretako zuntza zereal integraletan (oloa, garagarra, eta abar.) aurkitzen da, baita fruta eta barazkietan ere. Zuntz mota hau da idorreriarri aurre hartzeko baliagarria.

- **Zuntz disolbagarria.** Hestemugimenduak erregulatzeaz gain, hainbat gaixotasun izateko arriskua gutxitzen du. Gainera, urdailera iristan puztu egiten da, eta horrek asetasun-sentsazioa luzatzen du. Gari-zahia, lekaleak, frutak –zitrikoak batez ere–, fruitu lehorrak eta barazkiak dira zuntz disolbagarriaren iturri nagusiak.



BOCA DORADA-CC BY SA

Fruitu lehorrak dira zuntz disolbagarriaren iturri nagusietakoa.

ri nagusiak. Gorputz barruan pila-tutako mukia modu naturalean desegin eta kanporatzen du.

Mesede handiak

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, zuntzez aberatsak diren janariak zelulekin “talka” egiten dute digestio-aparatuaren barrenako bidaian, eta haien egitura egocera onean mantentzen duen gai lubrikatzaile bat askatzen dute. Mekanismo horri esker, zuntzak hainbat mesede egiten dio gure gorputzari:

- **Kolesterola gutxitzen du.** Urdailean dauden azidoekin eta kolesterolarekin elkartzen da zuntza, eta horrela hesteak koipe gutxiago xurgatuko ditu.

- **Odoleko azukrea hobeto kontrolatzen da,** karbohidratoak mantsoago xurgatzen direlako. Horregatik, diabetikoen jan-neurrian zuntz ugari egotea gomendatzen da.

- **Zenbait tumore prebenitzen ditu,** minbiziaren aitzindaritzat hartzen diren heste lodiko polipoak, esaterako. Heste lodiko eta ondosteko minbizia izateko probabilitateak asko murrizten dira jan-neurrian zuntza ugaritzen den heinean.

- **Hipertentsioa izateko arriskua murrizten du.** Horregatik barazkiak maiz hartzea gomendatzen da, tentsioa kontrolatzeko ezinbestekoak diren hiru mantengai (zuntza, magnesioa eta potasioa) ematen dizkigutelako. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera




web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zeruak eta lurrak

ZUHAITZAK LOTZEN DITU zeruak eta lurrak. Zutik den haitzak. Ez harritzko haitzak, harkaitzak. Ezta zurkaitzak ere. Bizirik behar du zurak; zuhaitz behar du.

Zuhaitzak zainak ditu lurrean eta zainak zeruan. Sustriak lurrean eta sustriak zeruan. Adarrak lurrean eta adarrak zeruan. Besangak lurrean eta besangak zeruan. Zein da handiagoa, lurpeko zuhaitza edo zerukoak? Zuhaitz helduetan, gehienean, handiena lurreko zatia dela dema egingo nuke. Biak antzekoak direla jo dezagun. Bi oihal josten dituzten albainuak bezalakoak dira zuhaitzak, lurrak eta zeruak harilkatzen. Elkarri ihes egin nahi dioten bi batean helzen dituen kateorrazak.

Zuhaitzak diren tokietan lotura eginga dago. Basoak oihanak zuhaitziak eraitsitako tokietan beste haitz batzuk zutitu genituen. Zeruak eta lurrak eta zeruak lotuko zituzten zutikako haitzak: menhirrak, iruinarriak, harrespilak, mairu baratzeak, jentil baratzeak... Geure buruak gure otoitzak behar zituen kateorrazak.

Zuhaitzen lan horren arrasto ugari dugu. Etxeko atearen hutsartea zaintzeko jartzen ditugun lore-



GEORGE CHERNILEVSKY

Mihura (*Viscum album*) sagarrondoan.

txortatxoak, lizarrak (*Fraxinus excelsior*), elorri zuriak (*Crataegus sp.*), erramuak (*Laurus nobilis*) eta palmak (*Phoenix canariensis*). Etxeari teiltua ematean gailurraren muturrean jartzen zaion lizarra edo erramua; trapalaren, montxoraren edo ostrokuaren dei eta eskari. Ateburuan eta sabaian azpitik igarotzeko zintzilikatutako mihura (*Viscum album*). Bizitzara lotzen gaituzten kateorrazak.

Mihuraren gurtza ez da berdantza-bartekoa. Zuhaitzak hostoak

galdu eta soiltzen denean, hor jarraitzen du mihurak, berde asko, bizi-bizi. Harriagarria dena gurgarri. Haritzean hazitakoa omen da auzoko galoentzat onena. Gaitz ugariren sendabide, eta sutetik babesten duena. Udako solstizioan, egun luzeenetan biltzen zen. Eta lehengo urtekoa sutara. Sanjoan suaren garrantzia. Ez dut ezagutu mihuradun haritzik. Sagarrondoak, udareondoak, ezkiak, sasiakaziak, astigararak... baina haritzik sekula ez. ■



Landare Berezien 13. Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPUZKOA) APIRILAREN 25a eta 26a

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara

Sarrera: 4 € (12 urtetik beherakoek doan)

DOAKO AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko Euskotren geltokitik eta Lorategi Botanikoaren inguruan moldatutako aparkalekuetatik

www.iturran.org www.aiapagoeta.com www.parketxesarea.org

TEL: 943 835 389

iturran@gipuzkoamendizmendi.net



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Hutsegiteak konpondu nahiak aberastu zuen mekanografo baldarra

DALLAS (AEB), 1950. Bette Nesmith Graham (1924-1980) Texas Bank and Trust enpresan hasi zen idazkari, berarentzat eta semearentzat bizibidea lortzeko asmoz, 1946an senarrarengandik legez banandu ondoren haren laguntzarik gabe egin behar baitzuten aurrera.

Nesmith berehala igo zuten mailaz eta idazkari exekutibo izendatu; hala, garai hartan banketxeetan emakumezkoek lor zezaketen postu gorena eskuratu zuen. Langile fina zen, baina mekanografian trebe izatea ez zen haren bertuterik handiena eta, ordenagailuak hedatu aurretik, oker bakar batek orria zaborrontzira bota eta hutsetik hastea esan nahi zuen.


Diru sarrerak handitzeko asmoz eta margetzeko zeukan trebezia baliatuz, banketxeko erakusleihoak apaintzen hasi zen eguberrietan. Inspirazioa orduan etorri zitzaion. Grahamen beraren hitzetan, “artistek ez dute egindakoa baztertzen huts bakar batengatik, txarto egindakoaren gainean pintatzen dute beti, eta artistek erabiltzen dutena erabiltzea erabaki nuen”. Botila txiki bat tenpera zuriz bete zuen eta, akuarelak margetzeko erabiltzen zuen pintzel finarekin batera, bulegora eraman zuen, mekanografia akatsak zuzentzeko.

Hasieran, ezkutuan erabiltzen zuen asmakizun gero eta hobea; semearen kimika irakaslearen laguntzaz pinturaren formula hobetuz joan zen. Banketxeko nagusiek, likido zuzentzailearen berri izan zutenean, errieta egin zioten. Lankideek, ordea, haientzat ere potetxoak egiteko eskatzen hasi ziren. Hala, 1956an produktua merkaturatzea erabaki zuen. *Mistake Out* izena ipini zion lehenik, eta *Liquid Paper* aurrerago.

Etxean laborategi modukoa prestatu zuen ekoizpena bermatzeko. Baina etengabe hazten ari zen eskaerak



Ezkerrean, Bette Nesmith Graham eta haren seme Michael Nesmith musikagilea, The Monkees taldeko kide izango zena. Alboan Betteren asmakizun arrakastatsua, mekanografiatzean egindako hutsegiteak zuzentzeko likidoa.



SUNSHINE FACTORY / PATENTLY FEMALE

bultzatuta, etxe atzeko lorategian etxola eraiki behar izan zuen. Hamabi urtez hura izan zen enpresaren egoitza nagusia. 1979an enpresak 200 langile zituen eta urteko 25 milioi botilatxo ekoizten zituen. Urte horretan bertan Gillette erraldoiak 47,5 milioi dolarren truke erosi zion enpresa Grahami.

Banketxetik ez zuten berehala kaleratu. Likido zuzentzailea erabiltzea gustuko ez zuten arren, beste aukera bat eman zioten. 1958an, ordea, hutsegite barkaezina egin zuen eta, orduan bai, egotzi egin zuten. Gutun bat mekanografiatzen ari zela, amaieran, banketxearen izena ipini ordez “The Liquid Paper Company” idatzi zuen. Bette Nesmith Graham ez baitzen ona mekanografian. ■

Arrastoak

Lucy ez da gure arbasorik zaharrena



1974AN haren hezurak Ethiopian aurkitu zituztenetik, Lucy (argazkian) jo izan da gure arbasorik zaharrentzat. *Australopithecus afarensis* espezieko arrastoek 3,2 milioi urte dituzte. Hogei urte inguruko eta metro eskaseko emakumearen 52 hezur aurkitu zituzten, eskeletoaren %40, arrasto hain zaharretan erabat ezohikoa dena.

Baina berriki *Science* aldizkarian

Chalachew Seyoum etiopiarrek argitaratu duen ikerlanaren arabera, Ethiopian bertan, Lucyrengandik 25 kilometrorra aurkitutako masailezur zati fosildu bat *homo* generokoa omen da, eta Lucy baino zaharragoa, duela 2,8 milioi urtekoa, hain zuzen. Seyoumen teoria egiaztatuz gero, gure espeziearen zuhaitz genealogikoa aldatuko da beste behin. ■

IGNACIO MONTOYA CARLOTTO
ARGENTINAKO HAUR LAPURTUA

«Nire kasua azaleratu zenean, argentinarrek garaipentzat hartu zuten»

Adoptatua zela ezagutu eta probak egitea erabaki zuenean, Ignaciok ezin zuen imajinatu azterketa genetikoak ekarriko zuen kalapita. Olavarriako (Argentina) nekazari familia xume baten altzoan hazitako piano jole hura Laura Estela de Carlotto eta Walmir Oscar Montoyaren semea zen, Maiatzeko Plazako Amonen elkarteko zuzendariaren biloba.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

1978ko ARGENTINAKO FUTBOL mundiala amaitu berria zela, militarrek preso zeukaten ama exekutatu baino lehen, besoetatik haur jaioberria lapurtu eta beste familia bati eman zioten. Ama bost orduz izan zen Guido izeneko semearekin. Estela de Carlottok ia lau hamarkada luze behar izan ditu bere alabak erditu zuen umea aurkitzeko. Ignacio Montoya Carlotto nortasuna berreskuratu duten 116 pertsonetako bat da.

Hilabete hauek nola bizi izan dituzu, pertsonaia anonimoa izatetik denen ahotan egotera pasa eta gero?

Bizirik atera naiz, hori da hain justu azken hilabete hauen laburpena. Bizitza berri bati nola heldu ikasi behar izan dut. Dena hain azkar aldatuz doanean zaila da aurreko bizimoduari eustea, eta ikasketa horretan zure bizitza pribatu eta publikoa bereizten ikasi behar duzu. Jendea zuri begira dagoela ikasi behar duzu. Familia berriarekin harremanetan jartzeko orduan ere, ikasi egin behar duzu. Hilabete eskas hauetan urteak iraun ditzakeen prozesu bat bizitzea egokitu zait.

Eman behar ez zenituen azalpenak ematera derrigortu zaituzte?

Hori beste ikasketa bat izan da, zer



Ignacio Montoya eta Estela de Carlotto 2014ko abuztuan egindako agerraldian. Montoya boluntarioki joan zen DNA azterketa egitera iazko uztaillean, adoptatua zela jakin ondoren, eta azterketa genetikoak biloba eta amona direla frogatu du.

erantzun eman behar diren eta nori eman behar zaizkion. Esaterako, laster eskuratuko dudana nortasun agiri berrian ez dut “Guido” izena paratuko. Ignacio jarriko dut, nire guraso biologikoen bi abizenekin,

Montoya eta Carlotto. Bada, Guido izena erabili ez izanak nire familia-koak ez diren batzuen ezadostasuna sorrarazi du. Eman beharko ez nituzkeen azalpenak eskatzen dizkidate.



Maiatzeko Plazako Amonak genetistekin lanean 1983an.
Eskuinean Estela de Carlotto.

Gertatu zenaren oihartzuna apaltzen ari delakoan zaude?

Ez dakit ba. Orain, gertatutakoaren tamainaz jabetzen hasia naiz. Hiruzpalau hilabetetan dena amaituta egongo zela, karriketan ezezaguna izaten jarraituko nuela pentsatzen nuen; eta ez da bete, inondik inora. Estela de Carlottoren bilobarena ezagutzerakoan negar egin zuela esaten didatenekin topo egiten dut, edo telebistetan nire irudiak bota zituztenean ez dakit non zeudela zehazten didatenekin... Eta nik berria zabaldu zenetik hartu nuen abiadura berean jarraitzen dut.

Hilabete hauek pasa eta gero, gaizki deritzozu Servini epaileak zure izena anonimatuari mantendu ez izanari?

Informazioa isilean gordetzera behartua zegoen. Gurasoena iker-tzeari ekin nionean, konfidentzialtasun kontratu bat sinarazi zidaten. Baina berria hain izan zen indartsua, inplikaturikook beroan erre-akzionatu baike nuen, epaileak barne. Eta ez dut uste borondate txarrez egin zuenik. Oso hunkituta zegoen, eta nire izena nahi gabe bota zuen. Lehen momentuan arazo handia ekarri zidan, baina aldi berean etapa

ugari gairitzen lagundu zidan. Beste modu batez gertatu izan balitz, astebetean gertatu zena gairitzeneko hilabeteak beharko nituen.

Zure nortasunaren berri izan eta gero, nola suertatu ziren lehenengo asteak?

Ikaragarriak izan ziren. Lehenik ihesean ibili nintzen, ezkutatuta, kazetariengandik urrun. Ezin nuen telebista piztu, kanal guztietan nire aurpegia ageri baitzen. Lehenengo aste horrekin Hollywoodeko pelikula bat egiteko material aski legoke.

“Argentinarrak harro gaud e memoriaren afera nola maneiatu dugun ikusita. Ez dugu orain 30 urte sufritu genuena errepikatzerik nahi”

Halere, Estela de Carlottorekin batera eman zenuen aurkezpen-prentsaurrekoan, itxura lasai eta irritsua erakutsi zenuen.

Berria unerik egokienean iritsi zitzaidan. Urte batzuk lehenago iri-

tsi izan balitzait, ez dakit nola hartuko nukeen. 36 urterekin harrapatu ninduen, nire lanbidea daukat, bikotekidea... Bestetik, prentsaurrekoa eman baino lehen egia esango nuela erabakita nuen. Eta egia esaten baldin baduzu, ezin duzu hutsik egin. Horrexegatik, trankil nengoen. Asuntoak hartu zuen abiadurak, gainera, ez zidan gaiarekin gora eta behera ibiltzeko betarik eman. Erabakiak ti-ta hartzen dituzunean intuizioaz baliatu behar izaten duzu, eta intuizioek batzuetan bete-betea asmatzen dute.

Suposatzekoa da jasan behar izan duzun presio psikologikoa oso gogorra izan dela. Adopziozko gurasoek zure iragana hasieratik jakin eta ezkutatu izan balizute, ez zen zuretzat errazago izango? Familia batekin moztu eta beste familia berri batekin hastea, alegia?

Ez dakit. Izan ere, hasieran gurasoen aferak iritzi publikoa zatitu baitzuen. Batzuek nire adopziozko gurasoen kontra jo zuten, eta haurraren lapurretaren ardura leporatu zieten. Nik neuk buruan kontraesanak eduki nituen. Baina orain oso argi daukat ez nindutela lapurtu, eta nire adopziozko gurasoak ere biktimak izan direla, biktima bikoitzak.

Argentinak gairiditu al du memoria historikoaren debatea?

Notizia lau haizetara hedatu zenetik, protagonistok sentsazio onak bizi izan ditugu. Gizartearen harre-ra oso positiboa izan da: eskuineko alderdietako jendea hurbildu zaigu, jatorri ezberdinekoa.... Inoiz, sare sozialen anonimatuari hiruzpalau zoro ezkutatzeko dira eta gure kontra sekulakoak botatzen dituzte. Argentinako gizartearen zati esanguratsu bat ordezkatzeko dutela iduri dezake, baina ez da horrela. Tamalez, egia da batzuetan debatea politizatu egiten dela. Ezin da ukatu Kirchner familiaren bi gobernuek giza eskubideak gobernu politikaren ardatz egin dituztela, baina giza eskubideak edozein zatiketa politikoren gainetik daude.

Argentina eredu ona izan daiteke 1936ko Gerra Zibilaren sarraskiak lantzeko?

Berriki jakin izan dut errepede bazterretan gorpuak lurperatuta dituzuela. Egia esan, ez dakit gure adibidea eredugarria ote den. Alabaina, memoriaren eta giza eskubideen politikak oso indartsuak dira hemen, herritarren eragin sakona izan dute. Nire kasua azaleratu zenean, gizarteak garaipentzat hartu zuen. Argentinarrak harro gaude, memoriaren afera nola maneiatu dugun ikusita. Ez dugu orain 30 urte sufritu genuena errepikatzerik nahi.

Politikan parte hartzeko gonbitea egin al dizute?

Nire jarrera oso argi utzi dut hasieratik eta ez dira gehiegi saiatu. Nirea musikaren alorra da eta hori da mundua aldatzeko erabiltzen dudana.

Nekazarien artean hazi zinen. Aita peoia zenuen. Musikari izatearena nondik datorkizu?

Nik ere gogoeta hori egiten nuen. Nekazaritzari lotutako lanbideren batean amaitu beharrean, alor artistikoa aukeratu nuen. Orain, nire guraso biologikoak eta familia berriak ezagututa, interesa hortik etor daitekeela pentsatzen dut.

Zure iragana ezagutu baino lehen *Para la Memoria* kantua idatzi zenuen.

Kantu honek gerora etorriko zena iragarri zuen. Hirugarren pertsona idatzi nuen, baina lehenengo pertsona sentituz, niri gertatzen ari zitzaidan zerbait izango balitz bezala. Horrek zer pentsatua eman dit. Oso kantu berezia da eta egun hauetako soinu-banda bilakatu da

kasik. Niretzat oso kantu garrantzitsua da; baina kanturik baliogarria etorriko dena da, eta ez eginga dagoena.

Ideologiari erreparatuta, zertan da ezberdin lehengo eta oraingo Ignacio?

Egiazki, ez dakit sobera aldatu naizen. Nire familiak balio xume eta soilak irakatsi zizkidan: egia, zintotasuna, lana, eta ezer gutxi gehiago. Eta ondoren etorri zaizkidan ideologia gehienak balio horiei lotuta daude. Adopziozko gurasoengatik jaso nuen hezkuntza nire guraso biologikoek eman ahal izango zidatenaren gisakoa da, bide berean jarri ninduten. Horri esker, tokatu zaidanari lasaia egin diot aurre. Nire familia berriaren ideologia eta nirea berdinak dira, eta hori zerbait magikoa bada.

Argentinako haur lapurtuak

JAIÖBERRIEN lapurreta eta trafikoa izan zen 1976tik 1983ra Argentinan indarrean izan zen diktadura militarren Estatu terrorismoaren ardatzetako bat. Videla jeneralak “ordena ezartzeko beharrezkoak diren argentinarrak hilko” zituela aurreratu, eta desagertuak eta bahiketak herrialde osoan barrena zabaldu ziren.

Preso hartu zituzten “subertsiboen” artean emakume haurdunak zeuden; presondegi klandestinoetan bizirik mantendu zituzten, umea erditu bitartean. Maiatzeko Plazako Amonen kalkuluen arabera, militarrek guztira 500 haur lapurtu zituzten. Jaioberrien agiriak faltsutu, eta adopzioan eman zituzten, maiz gurasoen hilketarekin harremana izan zuten militarren esku gelditu ziren. 1980an, artean diktadura bete-betean zela, Amonen bultzada nekaezinari esker, lapurtutako lehenbiziko haurrak berreskuratu zituzten: Tatiana eta Mara Laura Ruarte. Orduetik hona 116 haur aurkitzea lortu dute, eta lan horretan azterketa genetikoek egundoko garrantzia izan dute.

Eta Estela de Carlotto buruz zenuen iritzia aldatu al da?

Nik Estela de Carlotto ikusten nuen zera pentsatzen nuen: borrokalari bat da, eredugarria, diskurtso bateratzailea darabilena, gizalegez eta maitasunez bere bilobaren bila dabilen emakumea. Bada, emakume hori, honezkero ez da Estela de Carlotto anderea, amona Estela baizik. Eta berarekin irri egiten dut, txantxetan ibiltzen naiz, hitz egiten dugu, bidaiatu, ikasi...

Eta Hortensia, zure aitaren ama?

Hortensia amonak 92 urte ditu, eta traktore bat da! Ez da Estela bezain ospetsua, baina Argentinako hegoaldean asko estimatu izan diote irakaskuntzaren alde eginiko lana. Zoratzeko modukoa da, oso arraroa, bi amona hain indartsu edukitzea ere! ■

Leintz Gatzagako gatz museoa

GATZA SU TXIKITAN

Bisita gidatuak:

© 943 71 47 92 / turismoa@leintzgatzaga.com



Laborariak tresnak elkarbanatzen dituzte, zuk zergatik ez?

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Elgarrekin NMEK

Lekua: Makea (Lapurdi).

Bizibidea: Laborantza.

Inguruko laborarien antolaketa:

Elgarrekin NMEK (Nekazaritzako Makinen Erabilerarako Kooperatibak. Frantsesezko CUMA Coopérative d'Utilisation de Matériel Agricole).

Sorrera: 1975eko abenduan sortutako NMEK-k Lekornen (Lapurdi) du lantegia.



Gazte makearra bezala, Iparraldean dauden NMEK gehienak laborantzara edo nekazaritzara bideratuta daude, baina antolatzeko moduak eta eskemak beste arloetara bideragarriak dira, lehen sektorerara mugatu gabe.

MAKEAKO PENTZEETAN da Antton Uhalde laborari gaztea, egunero bezala bere ardi eta behiekin lanean. Esnetarako ditu lehenak, eta haragitarako, berriz, bigarrenak. Hogeita bost urterekin, badira lau haurtzarotik etxean ezagututako bizibideari heldu ziola; aita erretretan izanik berak hartu baitzuen aziendaren ardura. Elgarrekin NMEKn da sartua gaur egun, etxean irakatsi zioten bezala, eta inguruko 150 laborarik ere hautatua duten moduan. Zehazki zer da NMEK edo CUMA bat?

Laborari eta nekazariak modu kolektiboan elkarbanatzen dute lanerako beharrezko duten tresneria. Horrela, ekonomikoki asko errazten zaie laborari lanabesak erostea, ez baitio gastuari bakarrik aurre egin behar. Zonaldeka banatzen dira kooperatibak, eta beharren arabera materiala izaten dute. Elgarrekin NMEKn erosten den edo urtean zehar erabiliko den tresna bakoitzeko ez dute kide guztiak diru zati bat jarri behar izaten; laborari bakoitzak erabakitzen du zein material behar duen eta erabileraren

arabera antolatzen dute ordainketa. Urtean kuota bat izaten dute aukeraturako makina bakoitzeko, eta ondoren langileak erabilera-orduen arabera ordaintzen du.

Onura ekonomiko eta soziala

Alde ekonomikotik garbi dago laborariari merkeago aterako zaiola materiala kolektiboan erostea; baina alde sozialetik ere badu bere puska. Laborariak bildu egiten dira, elkarrekin lan egiten dute, eta sare sendoak sortzen ari dira. Jabego pribatutik harago taldea osatu dute, eta taldean funtzionatzen dute.

Antolaketarako independenteak

NMEK-k ez daude beste erakunderekin baten barruan, eta bata bestearengandik independente sortzen dira. Halere, izaten dute beste NMEKekin harremana, eta zenbait material erosteko bi edo hiruren

artean ere egiten dute tratua. Elgarrekin NMEK-k 150 kide inguru ditu eta bi langile dauzkate denbora osoz, kooperatibarentzat lanean. Hauek antolatzen dituzte guztiak garai bertsuan behar izaten dituzten makinak ordutegiak, erabilera-orduak, eskatzen diren tresna berrien hautaketa prozesuak, materialaren mantenua eta abar.

Laborari bat, boz bat

NMEK-ko kide guztien artean hartzen dira erabakiak, eta erosketa prozesuek bere denbora behar izaten dute adostasunera heltzeko. Eztabaidak luze jo badezake ere, azken hitza du laborari bakoitzak, eta bozka bidez erabakitzen da zein material erosi. Hiruzpalau aukeren artean, bakoitzak modu irekian nahi duenari ematen dio boza, eta gehien lortzen dituen izango da aukeratuakoa. ■

EITBri euskaldunak gaztelaniaz egitera ez behartzeko eskatu diote

KIROL ETA KULTUR MUNDUKO hainbat kidek EITBko zuzendaritzari kazetariei agindua emateko eskatu diote, alegia, euskaldunei, izan ospetsu izan anonimo, ez diezaizela eskatu gaztelaniaz egiteko, eta agindua bete dadin neurriak har ditzatela. Euskal Herri osorako ekimena da.

Gutuna idatzi diote EITBko zuzendaritzari eta eskutitzak dioenez, ETB2 kateko albistegietan bereziki, eta oro har gainerako programetan, euskal hiztunei ematen zaien tratuarekin kezkatuta daude. Hiztun ospetsuak eta anonimoak gaztelaniaz egitera behartzen dituzte. Praktika horrek bi ondorio dituela uste dute: “Batetik, desitxuratzten du Euskal Herriaren mapa linguistikoa, euskararen arnasmune diren herrietan gaztelania entzutea normala balitz bezala agertuz, inguru ez hain euskaldunetan euskara dakienari edo ikasi duenari bere dohaina agertzea debekatzeaz batera; eta,



Argazkian, eskaera sinatu dutenetako batzuk. Lehen lerroan, Itziar Ituño, Mikel Markez, Pako Aristi, Ramon Agirre eta Andoni Egaña.

bestetik, ETBren sorreran zegoen helburu nagusietakoa boikoteatzen du, hots, euskararen normalizazioa, erdarazko albistegietan euskal hiztunak desagertzen diren neurrian”.

EITBko zuzendaritzari eskaera egiteaz gain, herritar guztiei zabaldu die mezua, hau da, adierazpenak eskatuz gero euskaraz baino ez egiteko.

Bahea

Xabier Lapitzek *Deian* esanak:



“Euskararen inguruan jarrera asko har daitezke. PPK aurpegiak okerrera eman du, eta hizkuntza kontra egiteko arma gisa erabili du, nazkatu arte politizatu du, eta besteei leporatzen dien gauza berbera egin du. Are gehiago: frankismoko gorrotoak berpiztu ditu, Unidad Alavesa zenaren tesiekin berniza eman da. Bitartean, Labayru Institutuak etorkizunera begira segitzen du, euskaldunago, toleranteago, jantziago. Elebidun izatea ez da bi hizkuntzetan moldatzea soilik; bi unibertso ezagutzea da. Eta PPK berea ere baden unibertso bati muzin egiten dio”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Zifra iraingarriak

URTERO, Stockholmeko Bakearen Ikerkuntzarako Institutuak munduko gastu militarari buruzko datuak eguneratzen ditu. Munduan dagoen gosearen zifrekin konparatuz gero, eskandalagarria izatetik iraingarri izatera igarotzen da armetan gastatutako dirua, batez ere gosea jasaten duen gizateriaren zati horrentzat. Ikus dezagun.

2014an munduko gastu militarra 1,8 bilioi dolarrekoa izan zen. Munduak armamentuan 249 dolar gastatu zituen planeta honetako biztanle bakoitzeko. AEBek 581.000 milioi dolar bideratu zituzten, Txinak 129.000 eta Errusiak 70.000 milioi dolar. Horiek dira rankingaren podiumean daudenak. Espainiako Estatuaren gastu militarra ere ez da nolanahikoa izan iaz: 15.000 milioi dolar. Azkeneko honetan biztanleko 368 euro erabili dira, gastu farmazeutikoa aldiz 260 eurora ez da iritsi.

Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen (FAO) arabera, munduan 805 milioi pertsona daude goseak. 2008an FAOren goi-bilera batean esan zen sei urtez 30.000 milioi dolar inbertituz gero —orotara 180.000 milioi dolar— munduko gosearen larriena konponduko litzatekeela. Orduan, norbaitek gogorazi zuen AEBetako argaltze-tratamendurako merkatuak soilik 33.000

milioi dolar mugitzen dituela. Estatuabatuarek urtero 30.000 milioi dolar gastatzen dituzte euren maskotei (zakurrak, katuak...) jatena emateko. Goi-bilera hartan, herrialde aberatsek hitz eman zuten 12.000 milioi dolar bideratuko zituztela laguntzetan, eskatutakoaren herena. Baina 1.000 milioi baino ez zituzten egiaz entregatu. Urte bereko azaroan herrialde horietako burtsak eta bankuak hondoratu ziren, eta euren gobernuak goseak daudenez ahaztu ziren betiko. Hilabete gutxiren buruan, aldiz, bankuak salbatzeko 3 bilioi dolar erabili zituzten.

2001ean 3.000 pertsona hil ziren New Yorken atentatu baten ondorioz. Egun berean, mundu osoan 25.000 pertsona hil ziren gosez, eta hurrengoan beste hainbeste, eta horrela egunero. Atentatua munduaren erdigunean izan zenez, jendartea mobilizatu zen eta erantzuleak pertsegitu ziren. Goseak, hildako askoz gehiago eragiten duen arren, ez du mobilizaziorik sorrazten, eta jakina, ez dira pertsegitzen haren erantzuleak, izango ez balitu bezala. Desberdintasunaren gizar-tean bizi gara.

Juan Mari Arregi

«Errotiko aldaketa nahi dugu Nafarroako hizkuntza politikan»

Tamaina horretako ekitaldiek eskatzen duten prestakuntzan ohikoa den moduan, lanean buru-belarri dabil Kontseiluko ordezkari Maite Inda (Iruñea, 1981).

Apirilaren 25ean Nafarroako euskaldunak batu eta ilusioa pizteko ekitaldia antolatu dute Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

| IGOR AGIRRE |

Zergatik antolatu duzue ekitaldi hau?

Ekitaldia Nafarroako Kontseiluaren mahaitik dator. Mahai horren bueltan esertzen dira AEK, IKA, Euskal Herrian Euskaraz, Topagunea, Sortzen eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak. 2009an biltzen hasi ginen, UPNren hizkuntza politikek Nafarroako Gobernutik torlojuari beste buelta bat eman ziotelako. Krisi orokorraren aitzakiatan, estutze ekonomiko ikaragarria egin zioten Nafarroako euskalgintzari. Itolarri horretan ikusi zen indarrak batu beharra zegoela eta kalera ateratzeko beharra genuela.

2010ean indartsu ateratu ginen kalera, *Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea* lemapean. Bertan plazaratu genuen lehen aldiz *Euskaraz bizi nahi dut* lema bera. Esan dezakegu geroztik bide oparoa egin duela lema, Nafarroako mugak gaindituz eta Euskal Herrira jauzi eginez. Hura momentu indartsua izan zen.

Ikusten genuen soilik kalea hartzearekin ezin genuela geratu eta beste bide batzuk ere urratu behar genituela. Elkartasunean ari gara lanean eta Anaitasuna elkarlan horren fruitua da. Ikusi genuen, manifestazioez aparte gure jendearekin komunikatzeko beste modu bat behar genuela. Horregatik antolatu dugu Anaitasunako ekitaldia.



“Duela hamabost urte oso gordina zen UPNren hizkuntza politika, eta azkenean, nolabaiteko aldaketa eman behar izan dutela esango nuke”.

Nolako ekitaldia izango da?

Bi funtzio ditu ekitaldiak. Alde batetik, jendeak egunerokoan euskaraz bizitzeko jarrera zehatzak hartu eta orain arte lan egin duen jende horri aitortza egin eta eskerak eman nahi dizkiogu. Bestetik,

kanpora ateratzeko abagunea ikusten genuen, eta Nafarroako hizkuntza politiketan errotiko aldaketak nahi ditugulako erabaki genuen Anaitasuna hartzea.

Desberdin ari gara lanean ekitaldiari begira. Badakigu jendeak

Anaitasunaz zein argazki egiten duen. Ez bada kirol ekimen baterako edo kontzertu baterako, ekitaldi formatuan erabili denean ekitaldi politikorako erabili izan da. Gainera, ekitaldi politiko horietan une konkretu bateko proposamenak aurkeztu izan dira. Orain arte euskararen mugimenduak ez du hartu eta badakigu nafarrentzat Anaitasunak badauzkala konnotazio konkretu batzuk.

Hasieratik horrekin apurtu nahi duen ekitaldi baten bila ari gara. Ez da egongo atril bat eta ez da egongo lider bat hizketan. Gu herri mugimendua gara, gu jendea gara, eta jendea harmailetan egongo da. Horregatik, zeresana izango dute harmailek ekitaldian zehar. Ekitaldi metaforikoa izango da. Horretarako laguntza eskatu dugu eta Eneko Olasagastirekin lanean ari gara alde artistikoa jorratzeko.

Hori guztia egonda ere, Nafarroan aldaketarako proposamena plazaratuko da. Hizkuntza politiketan erroto aldaketa emateko zer aldaketa eman behar diren ere Anaitasunak islatuta egongo da.

Zeintzuk dira proposamen horren ardatzak?

Proposamena aldaketa politikoari dagokiona da. Urteak daramatzagu UPNren hizkuntza politikapean eta oso bistakoa da euskararen kontrako politika egin duela. Hain da gutxi euskararen alde egin duena, gobernu aldaketa bat balego, atzetik datorrenak pentsa lezakeela aurrekontuetan igoera partzial batzuk eginda edo aldaketatxo batzuk eginda hizkuntza politiketan aldaketa eman dutela Nafarroan.

Ez dugu arrisku hori pairatu nahi. Behingoz aldaketa politikoa ematen bada, erroto aldaketa nahi dugu. Horretarako urgentziatzeko hamahiru neurri planteatu ditugu, balizko gobernu berriak lau urtetan martxan jartzeko modukoak. Aldaketa-
ren minimoa markatzen dute hamahiru puntuok, hortik aurrerako guztia ongi etorria izango da.

Zenbateraino estutu ditu Nafarroako Gobernuak euskara eragileak?

Esango nuke apustu argia egin duela mugimendua deuseztatzeko. Uste

du UPNk bere hizkuntza politika birformulatzeko egoeran ikusi duela bere burua. Beti izan da kontrakoa, baina egia ere bada herritarrek egin dituzten presioen eta salaketen ondorioz aldatu beharra izan dutela. Duela hamabost urte oso gordina zen UPNren hizkuntza politika, eta azkenean, nolabaiteko aldaketa eman behar izan dutela esango nuke.

“Gu herri mugimendua gara, jendea gara. Beraz, harmailek zeresana izango dute ekitaldi metaforikoa izango da Anaitasunakoa”

Esate baterako, Euskararen Legearen azken aldaketan, ikastolen defendatzaile gisa agertu zen, halako aldaketa batek kolokan jar zitzakeela proiektu horiek argudiatuta. Badakigu atzeko asmoa zein den: euskara ez hedatzea. Baina aldaketa horretan esango nuke misterioitsuago jokatu nahi izan dutela eta hiru ardatz erabili dituzte. Bata, ingelesari gogor heldu diote. Ez dute esaten euskara ikasi behar ez denik, baina ingelesa edo euskara hautatu beharra duzu. Bestea, intoxikazio kanpaina neurruak egin dituzte. Adibidez, aurreko ikasturtean Guardia Zibilaren txosten misterioitsuarekin bueltaka ibili ziren. Azkena, itotze ekonomikoa da. Krisi ekonomikoaren aitzakia baliatu dute mugimendua itotzeko.

Ez dute horren agerian esaten euskararen kontra daudenik, baina neurri horiek asko indartu dituzte.

“Balizko gobernu berriak datozen lau urteetan martxan jartzeko moduko urgentziatzeko hamahiru neurri planteatuko ditugu”

Indar aldaketa gerta daiteke Nafarroan. UPN oposizioan geratuz gero, hizkuntza politikan esperantzarik baduzue?

Nola ez bada! Orduan ez bada hizkuntza politika aldatzen...

Denbora honetan guztian nagusiki UPN izan da hizkuntza politika egin duena. Beraiek kenduta, ez dugu aurreikusten eszenatoki bat non bestelako hizkuntza politika bat ez den egingo. Alderdi guztiak aldatetik hitz egiten ari dira. Hortaz, imajinatzen dugu beste alor batzuetan bestelako politikak egingo dituzten bezala, hizkuntzan ere egin beharko dituztela. Horretarako gonbita luzatzen diegu, edo exijitzen diegu alderdi guztiei, nahi duten moduan hartu dezatela.

Aldaketarik egon ezean zer?

Aldaketa etorrira ere guk lanean jarraituko genuke. Eta ez baletor, izerditu eta lan egin. Ez dugu etsiko. Ez diogu utziko euskaraz bizitzeari, ezta nahi hori gauzatzeari ere. Bide beretik jarraituko dugu aldaketa egon ala ez.

Zein iritzi duzu Nafarroako azken inkesta soziolinguistikokoaren emaitzen inguruan?

Datuak plazaratu zirenean erdaldunduagoak dauden zonaldeetan euskarak gorantzko joera eta euskaldunduagoak direnetan beherantzko joera izan duela azaldu zen. Datu horiek datu soil moduan emateak eta arrazoietan ez sartzeak kezkatzen nau.

Nafar euskaldunen potentzialtasunaz hitz egiten dute datu horiek, kontrako haize indartsuarekin gai izan garelako aurrera egiteko.

Eremu euskaldunduagoetan gertatu dena ez da Nafarroako kontua soilik, Euskal Herri osoko fenomeno da. Fenomeno hori indarrean dauden hizkuntza politiken ondorioa dela argi dugu.

Herri euskaldunago horietan bizi diren horiek ez dira isolatuta bizi. Beraien herrietara erdaldun elebakarren etorrerekin eta telebista erdaldun askorekin bizi dira, besteak beste. Iruditzen zait hori guztia tartean egonda, arrazoiak gehiago aztertu behar direla, maiz euskaldunaren utzikierari egozten baitzaizkio. ■

Troitiño espetxeratzeko ingeniaritza juridikoa

Espainiak eskatutako Antton Troitiñoren estradizio eskaerari baiezkoa eman zion apirilaren 14an Londresko Westminster Auzitegiako Howar Riddle epaileak. Orain helegitea jarriko du defentsak eta ondoren ikusi behar. Troitiño baldintzapeko askatasunean da Londresen eta, beste euskal preso batzuekin bezala, Espainiako Gobernuak abian du berriz espetxeratzeko tresneria osoa. Ingeniaritza juridikoa deitzen diote Madrilen.

| XABIER LETONA |

ANTTON TROITIÑOK 24 urte pasatu zituen Espainiako espetxeetan eta 2011ko apirilaren 13an utzi zuen aske Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko Hirugarren Aretoak. Alfonso Guevara, Guillermo Ruiz Polanco eta María de los Ángeles Barreirok osatzen zuten epaimahaia.

Libre geratu diren etakide historiko askorekin bezala, Espainiako hainbat esparrutik oso kritika gogorak egin zitzaizkion Auzitegi Nazionalaren erabakiari, batez ere biktimen elkartetatik eta PPtik. Bere kasuak berriz ere argi adierazten du Espainiako Gobernuak egin ahalak egiten dituela hainbat preso-
ren inguruan akusazioak sortu eta berriz espetxeratzeko.

2011ko apirilean Espainian sortu zen ekaitz mediatikoa erabakigarria izan zen bere askatasuna agindu zuten epaile berberak astebete geroago berriz espetxeratzeko eskatzeko. Ordurako, aldiz, Troitiño alde egin da zegoen. 2012ko ekainean atxilotu zuten Londresen eta espetxeratu. 2013ko urrian, ordea, Parot Doktrinari buruzko epaia eman zuen Estrasburgoko Auzitegiak eta, horren ondorioz, Erresuma Batuko justiziak baldintzapeko askatasunean utzi zuen presoak.

Espainiako agintariek, ordea, ez zuten amore eman eta atxilotaketaren unean iheslariari atzemandako dokumentazio faltsua dela eta,

berriz ETAn sartzea leporatu zioten. Horregatik, eta Auzitegi Nazionalaren aginduz, 2014ko otsailaren 13an osteratxilotu zuen polizia britainiarrak. Egun bat geroago baldintzapeko askatasunean utzi zuten.

Hilaren 14koa izan da Espainiak bere aurka egiten den hirugarren estradizio eskaera. Baiezkoaren ondoren, orain bere abokatuek helegitea jarriko dute eta berau zertan amaitzen den ikusi beharko da.

Espainian libre utzi zutenekoa

2011ko apirilean Troitiño libre geratu zenean Espainiako Brunete mediatikoa martxan jarri zen, oraingoan Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko Hirugarren Aretoaren aurka. Honakoa zioen Federiko Trillo PPko Justizia eta Barne ardura-dunak: “Lotsagarria da espainiarren eskubideak bermatu behar dituen Konstituzio Auzitegia etakideen eskubideak bermatzen jardutea”.

Antonio Basagoiti (PP), Troitiño askatu zutenean: “Gobernuak dena delako bidea topatu beharko luke etakidea espetxera itzul dadin”

Antonio Basagoiti orduko EAEko PPko lehendakaria zehatzagoa izan zen: Troitiño libre uztea “guztiz lotsagarria da” eta Gobernuak “dena delako bidea topatu beharko luke” etakidea espetxera itzul dadin.

Libre utzi zuteneko mamia behin-behineko espetxe zigorra betetzeari buruzko arauen interpretazioan zegoen. 2008an Konstituzio Auzitegiak erabaki garrantzitsua hartu zuen behin-behineko espetxealdiaz, beti ere zigor bat baino gehiago dagoen kasuei eragiten diena. Auzitegiak ebatzi zuen bigarren —edo hirugarren, laugarren...— zigorraren behin-behineko espetxealdia, guztira bete beharreko espetxe zigorretik kenduko zela. Eta behin-behinean betetako zigor egun bakoitzeko beste bat emango zuen Zigor Kodeak, presoak behin-behineko espetxe egoeran jaso ez zituen onurak konpentsatzeko.

Epaia horretan oinarritu zen Auzitegi Nazionalako Hirugarren Zigor Aretoa 2011ko apirilean Troitiño libre uzteko. Egiazki, euskal presoak 32 urteko espetxealdi ofiziala bete zuen, guztiz ezohikoa bada ere bere behin-behineko espetxealdia 8 urtekoa izan zelako. Apirilaren 13 batean hartu zen erabaki hori, baina aldi berean, Auzitegi Gorena ari zen erabakitzen gai berari buruz eta martxoaren 28ko



Troitiñoaren kasuan, 2012ko atxiloaldian Espainiako Gobernuak Parot doktrinan oinarritu zen bere estradizio eskaera egiteko. Urte berean erori zen doktrina eta berarekin estradizioa. Espainiako Gobernuak, hala ere, ez zuen amore eman eta orain berriz ETAn sartzea leporatzen dio, 2012ko atxiloketaren unean ihes egiteko agiri faltuak atzeman zizkiotelako. Noiz eta presoak 24 urte espetxean eman dituenean eta ETak bere jarduera armatua bertan behera utzi duenean. Ezkerreko argazkian, Troitiño Londresen, goikoan 2011n Huelvako espetxetik ateratzen.

data zuen epaian Gorenak guztiz kontrakoa esan zuen: behin-behineko espetxealdia zigor bakoitzetik kendu beharko zen hauek bete ahala.

PPren gobernuak ere buruan zuen 2008ko Konstituzio Auzitegiaren epaia eta 2010ean Zigor Kodearen 58.1 artikulua erreformatu zuen, argi adieraziz behin-behineko espetxealdia zigor bakoitzetik kenduko zela eta ez zigor osotik. Zein zen arazoa? Lege aldaketak ezin direla atzera begirakoak izan eta 2010etik aurrerako zigorrei bakarrik eragingo ziela. Konstituzio Auzitegiaren epaiak euskal preso ugariri eragingo zion eta aurkitu behar zen hori ez gertatzeko modua. Ingeniaritza juridikoa egin behar zela, alegia.

Zergatik egin zuten atzera epaileek?

Auzitegi Nazionaleko Hirugarren Aretoko epaileen esanetan euren lehen epaia akatsa izan zen, Auzitegi Goreneko epaiak martxoaren 28ko data bazuen ere, hau apirilaren 18an eman zelako ezagutzera eta beraien epaia apirilaren 13koa izan zen.

Jose Luis Rodríguez Zapateroren ministro Juan Fernando López Aguilarek ere argi esan zuen bere garaian: ez badago frogarik, sortuko ditugu. Egungo Barne ministro Jorge Fernandezek bestelako molde esan zuen antzerakoa Parot

Doktrina dela eta: behar izanez gero, ingeniaritza juridikoa egingo da.

Gerora, 2013ko irailean emandako epaian Konstituzio Auzitegiak dio bera ez dela sartzen auzitegi arruntek Zigor Kodea indarrean jartzeko hartzen dituzten erabakietan, bere lana askatasunen bermea delako. Eskuak garbitzen ditu eta listo.

De Juana, Troitiño, Arrozpide...

Ez da kasu bakarra Troitiñoarena, hainbat euskal presok egin dute topo ingeniaritza juridikoarekin. Agian ezagunena Iñaki de Juana Chaosena da. 2006ko Loiolako prozesuaren testuinguruan sortu zen bere askatasunaren auzia eta –hasitako gose grebaren ondorioz– De Juana hil zorira eraman zuen. Libre geratu ondoren, berriz eraiki ziren bere aurkako salaketak Gara-n idatzitako El Escudo eta Gallizo iritzi artikuluen bidez. Gaur egun ihesi da oraindik.

ETA su-etenean zen orduan, baina jardun armatuan. Troitiño libre utzi zutenean ETak oraindik iragarri gabe zuen jarduera armatuen etena. Espainiako agintarien ikusmoldeak, aldiz, berdin-berdin jarraitzen du ETak armak utzi eta gero.

Santiago Arrozpide preso lasartearrenak ere merezi du aipamenik, berari ere botika berarekin erantzun baitio Espainiako justi-

ziak. 2014ko abenduaren 4an libre utzi zuten espetxean 27 urte egin ondoren eta 2015eko urtarrilaren 20an atxilotu zuten berriz, oraindik epaitu gabeko bi auzi leporatuz. Alberto Plazaola ere Arrozpideren egun berean askatu zuten, baina atxiloketa agindua eman zenean ez zuten aurkitu.

Arrozpiderenak ez du zentzu juridikorik, Espainiako justizian zigorren batzea kontuan hartzen delako eta horren arabera, garai bertsuan eta delitu mota berarengatik emandako zigorrak zigor bakarrean biltzen direlako. Orain leporatzen dizkieten atentatuak 80ko hamarkadakoak dira eta Arrozpide, hain zuzen ere garai horretan gertatutako atentatuengatik zigortu zuten.

Salaketa berriek ez dute ibilbide juridikorik, berandu baino lehen libre utzi beharko lukete, baina balio dezake orain denbora batez Arrozpide berriz espetxean mantentzeko. Mendekuaz gain, Espainiako Gobernuak hainbat biktimen elkartetik jasotzen dituen kritiketatik babesteko balio dio.

Arrozpideren giza eskubideen erabilera politikoa erabat gardena da Mariano Rajoyren gobernu eta Espainiako Justiziaren aldetik, ezin esan ezkutuan ari direnik. Ezkutua dago euskal gizartea eta instituzioen aldetik halakoen aurrean egin beharko litzatekeen salaketa. hori egiten ari dira. ■

Eta Greziak badio bere zor publiko asko bidegabeak direla?

Lehenbiziko aldiz historian Europar Batasunaren barruko legebiltzar batek batzorde ofizial bat izendatu du herrialde horrek daukan zor publikoaren auditoria egiteko. Greziak sortu duen “Zorraren Egiari buruzko Batzordea” aurrekari berritzaile bilakatu daiteke baldin eta bestetan, agian Euskal Herrian, ereduari jarraitzen hasten bazaizkio.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EAE EDO NAFARROAREN ZORRAK auditatuko dituzten batzorderik ikusiko ote da Iruñea edo Gasteizko legebiltzarretan? Pentsa ezinezkoa zirudien, zor publikoen auditorien kontua orain artean neoliberalismoaren kontrako talde ezkertiarren aldarrikapena baizik ez zelarik, Europar bederen. Martxo hasieran, ordea, Greziak ipini du aurrekari berria: dagoeneko Europar Batasuneko legebiltzar bateko batzorde berezi batek ikertzen ditu herrialdearen zor itzelak, erabakitze horietatik zenbat diren legezko bezain ordaindu beharrezkoak, eta zenbat bidegabeak.

Eric Toussaint ekonomialari eta lider altermundialista belgikarra pasatu da joan den astean Euskal Herritik, baina oraingoan ez da etorri 2013an bezala Hirugarren Munduko Zorraren Auditoriarako Komitearen (CADTM frantseseko sigletan) lider moduan. Martxo hasieratik Toussaint da Greziako legebiltzarrak abian jarritako Zorraren Egiari buruzko Batzordearen lehendakaria. Gizarte mugimendu baten ordezkari izatetik legebiltzarrerko batzorde baten buru izatera dagoen jauziak erakusten du gaiak eztabaida publikoan hartu duen garrantzia.

Zorraren auditoria egingo dute Greziako batzordean, azken urte-

tan pilatutako 300.000 milioi euroko maileguen erradiografia. Toussaintek garbi utzi du ez dagokiela gobernuari zorretatik zein ordaindu eta zein ez gomendatzea. Bestalde, ikerketatik kanpo utziko dituzte II. Mundu Gerran Alemaniako armadak Grezian egindako txikizioen kalte-ordainak eta naziek hartu arazitako maileguen kitatzea.

Zer aurkituko duten 300.000 milioi horien artean? Ekainean jakinen da. Baina martxoan bertan batzordeko kideek aurreratua zuten lehen azterketa batean identifikatu zituztela 53.000 milioi ez legezkotzat salatze modukoak.

Lau motatako mailegu eta zorrak nabarmendu nahi dituzte Greziako auditorian. Lehenik, zor bidegabe edo ilegítimoak, administrazioak herritar guztien interesaren kontra gutxiengo baten mesedez egindakoak. Bigarren, zor ez legezkoak, ilegalak, Greziako edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako lege eta arauak urratuz egindakoak.

Hirugarren multzo bat osatzen dute zor gorrotagarriak, hau da, jendeen oinarritzko eskubideak (osasuna, hezkuntza, zahartzaro duina...) urratzearen gain hartutakoak. Eta laugarren multzoan, iraunkortasun edo jasangarritasun printzipioa urratzen dutenak; herri-

Dani Blancok apirilaren 14an egindako argazkian, Eric Toussaint (eskuinean) Euskal Herrira ongi etorria egin zion Mikel de la Fuenteren ondoan. Toussaint 1980ko hamarkadan hasi zen interesatzen zor publikoaren handitze bidegabean, orduan Europar bankuek bat-batean interes tasak igotzeak finantza publikoei eragindako kalteagatik. Geroztik nagusiki Hegoaldeko herrialdeen zorren inguruan aritu izan da. Orain Grezian gaiak hartu duen izaera ofizialak aukera berriak sortuko dituela uste du, neoliberalismo urte luzeotan finantzetako aginte handiek etekinak pribatizatu eta zorrak gizartearen bizkar uzteko antolatu duten estrategiaren barrunbeak azaltzeko. Euskal Herrian ere interes handia piztu du auditoriaren gaiak: Nafarroako iruzurrak argitzeko, Abiadura Handiko Trenaren operazioaren barrunbeak ezagutzeko, Gipuzkoako errauskailuaren eskandalua haizatze...

tarren bizimodu duina mantenduz ordaindu ezinekoak direla jakinda ere onartu diren zorrak.

Hamar herrialdetako 30 kidek osatzen dute Greziako Zorraren Egiaren Batzordea, gaia ikuspegi ezberdinetatik aztertzeke: ekonomia, nazioarteko legeria, giza eskubideak, eta abar. Gomendiorik idatzi ez baina argudioak eskainiko dizkiete Atenasko agintari berriei, nazioarteko hartzekodunei aurre egiten eta zorra berregituratzen —zati bat eteten— lagunduko dietenak.

Bankuak salbatzeko makina

Toussaintek badu dokumentu bat martxoan bertan ipinia CADTMren webgunean Greziako batzordearen lanak nondik joan daitezkeen aurreratzen duena: “*Pistes pour l'audit de la dette de la Grèce*”. Leitzekoa da.

2009an Greziak, dio Toussaintek, zor zuen bere Barne Produktu Gordinaren %119 eta Troikak eskua sartu duenetik —Troika da gaur zorraren %80ren hartzekoduna— igo dira %185eraino. Troikak zorpetzea handitzea eragin du, beraz, baina operazio horrek balio izan du Europako banku handiek, nagusiki frantziar eta alemaniarrek, Grezian zeuzkaten maileguak Troikaren bizkar pasatzeko zor bihurtuta. Bankuak libratu arrisku orotatik, instituzio publikoak lokaztuz.



Baina Troikak eskua sartu aurretik egindako zor handiak ere ikertuko dituzte. 1967tik 1974ra artean koronelen diktaduran lau halakotu zen zorpetze publikoa. Toussaintek nabarmendu du 2004ko Joko Olinpikoek utzitako zuloa ere. Aurretik iragarri bazuten 1.300 milioi euro kostako zirela, olinpiaden bihar-muncan agintariek aitortu zuten 14.200 milioi xahutu zituztela (hamar halako!), eta badira adituak zifra 20.000 milioitan jarri dutenak.

Ildo gehiago ere arakatuko ditu ikerketak, hala nola Thyssen konpainia alemanak saldutako urpeko ontzi matxuratuen eskandalu garestiarena, PASOKeko agintarien artean eskupekotan mila milioi euro laga zituen Siemens multinazional alemanarena, eta abar luzea.

Batzordeak lana amaitutakoan, Syrizariko gobernuak eskuetan edukiko du argudio sail bat nazioarteko hartzekodunei, pribatuei bezala Troikari, 300.000 milioiko zor itzelaren zati bat kitatzea proposatzeko. Bitartean, Alemaniaren zor historikoa ikertu duen batzordeak ere zehaztua izango du berea.

Esan gabe doa Greziak egin beharreko hautua politikoa izango dela eta argudio horiek adina edo gehiago neurtu beharko dituela etxean bezala nazioartean dauzkan indarrak. Zorraren zati handi bat ordaintzeari uko egiteak ondorio handiak ekarriko baititu.

Baina bidean batzordeak lortua izango du European orain arte falta zen argazki bat: oligarkia neolibera-lek herrialdeetako diru publikoak nola zurrupatzen dituzten erakusten duen erradiografia. ■

“*Arte* telebistak eskainitako dokumental batean Paulo Nogueira Batista, Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) zuzendari exekutiboak aitortu zuen NDFko buru guztiek zekitela mailegu hura ematea zela ‘ez Grezia baina banku frantziar eta alemaniarrek salbatzea’”. (...) Horrela jarri da Troika Greziaren hartzekodun nagusi 2010eko amaieran, banku pribatu europarren lekuan”.

NDFk Grezian egin duen lana ere fiskalizatuko dute bide batez. Demostratuko omen dute erakundearen zazpi zuzendari exekutibo memorandum berriaren kontra zeudela, nabarmena zelako Grezia ez zela gai izango zor hura ordaintzeko. Ez hori bakarrik: “Garai

hartako [George Papandreou] gobernu greziarrak, NDFko [Dominique Strauss-Kahn] zuzendariarekin elkar hartuta, bere administrazioari eskatu zion estatistikak faltsutzea, NDFrekin birfinantziaztea lortzeko”.

Troikak ezarritako memorandumak greziarren ekonomian bezala eguneroko bizimoduan eragindako kalteak nabarmenak izan dira. Auditoriak orain erakutsi beharko du zorrak berregituratzearren truke Greziako estatuari ezarritako politikek eta klase guztietako murrizketek zenbateraino urratu dituzten bertako eta nazioarteko legedi eta arautegiek bermatutako eskubide pertsonalak eta kolektiboak.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Charlie gara, ez Abdul

MIRIBILLA, Bilbo, 2015eko urtarrikak 10, arratsaldeko 16:30ak. Euskal presoan aldeko manifestazioaren berri ematera noa ARGIArako eta autoa aparkatu ondoren kafetxo bat hartzera sartu naiz taberna txiki batean. Hiru bezero bakarrik gaude, bi ozen ari dira kalakan, gizonezko bat batez ere: “Gure bizkar bizitzera datoz kanpotar horiek, lanik egin gabe bizitzera... guretzat beharko ez bagenu moduan... zer uste dute... eta gu irentsi eta irentsi... noiz espilatuko dugu?”.

Ez nuen bakero ausartarena egin. Entzun, kafea irentsi eta alde. Ez dakit Intxaurraga, Fernandez, Agirre edo Lekue zen, baina Javier Marotoren berbak ziren, haren zakarkeria berdinez jaurtitu. Sarri entzuten direnak, ezer berririk ez alde horretatik.

Aste batzuk geroago etorriko zen ezohikoagoa dena, gertuagoko mahaian eta gertuagoko pertsonak: “Kalean jende askok pentsatzen du horrela... iruzurra ematen dela diote dakitenek... eta datozen guztiei irekiko dizkiegu ateak ala?... denak etorriko dira?”. Deabruaren abokatua. Uste dut.

Lehenago Mexikoz aritu dira, bertan Aberri Egun baten karietara euskal herritar talde batek egingo bazkariak. Diruduna da etxe-ko jabea. Beti izango ote zen hala? Haren arbasoak iritsi zirenean ere bai? Mahai bueltan diren guztien arbasoak “hangoei haiena kentzera” joan ote ziren? AEBetan egun populazioz bigarren komunitatea osatzen duten hispanoak lorez eta lurrinez hartuko ote zituzten hegoaldeko mugetan diren pasabideetan?

GEZURRA Maroto! Berak badaki, baina 41.000 sinadura lortu ditu

Eusko Legebiltzarrean ekimen legegilea bideratzeko. Boto ehiza. EAEko populazioaren %6,9 da immigrantea (Arabian %8,3, Espainian %10,7) eta Diru Sarre-rak Bermatzeko Errentaren (DBE) %40 immigranteek jasotzen dute. Adolfo Alustiza Lanbideko zuzendari nagusiak otsailean jakinarazi zuenez, %0,3 da DBEn ematen den iruzur kopurua. Hutsaren hurrengo, esate baterako, EAEn ematen den BPGaren %20ko zerga iruzurrarekin konparatuta (Ogasun Ministerioko Teknikarien Sindikatua, 2013ko datuak). Dirutan: 1,2 milioi euroko iruzurra DBEn eta 13.560 milioi urteko zerga iruzurra. Diru publikoa azken zentimoraino kontrolatu behar da, baina bistan da badirela garrantzia desberdineko gaiak.

DBE estatu osoko diru-laguntza sozialeko sistema oparoena da, baina ez du dei-efekturik izan; horregatik ez dago immigrazio kopuru handiagorik EAEn

EAEn DBE bidez diru laguntza soziala banatzen bazaie immigranteei denak etorriko dira? Gezurra berriz ere. Immigranteak doaz haientzat lana den lekuetara, horregatik joan dira askoz gehiago Espainiako hainbat lurraldetara, eraikuntza, ostalaritza eta nekazaritza lanpostu gehiago direlako han. DBE estatu osoko diru-laguntza sozialeko sistema oparoena da, baina ez du dei-efekturik izan; horregatik ez dago immigra-

zio kopuru handiagorik EAEn. Egiazki, kopurua txikitzen ari da: 2012an eta 2013an immigrante kopuruak behera egin du EAEn (2013an ia 8.000 immigrante gutxiago Immigrazioaren Euskal Behategiaren datuetan).

Baina Javier Maroto eta PPren-tzat botoak pertsonen duintasuna baino garrantzitsuagoak dira, edo-zerk balio du gorrotoaren bandera astintzeko, hori egiten baitu 41.000 sinadurako kanpaina bilketa eginez. Bera PPko parlamentaria da Eusko Legebiltzarrean, PPk 10 parlamentario ditu, nahi adina lege proposamen bidera dezakete, baina nahiago dute herritarren ekimeneko aukera baliatzea. Adierazgarria erabat.

Eta orain Javier de Andrés PPko Arabako Ahalduen Nagusia gehitu zaio gurutzadari: immigranteak bakarrik ez, euskara elkartetan ari den Bildu, Batasuna eta gisako jendilajea da Arabaren azken hamarkadetakoz izurritea. Berriako De Rerum Naturako kapitulu berri batean –*Morralla*– Euskal Michael More kazetari eza-gunari De Andresek emandako erantzuna ezin adierazgarriagoa izan da. “Arabian bizi den jendea arabar biztanleak dira?”, galdegin dio kazetariak, “Bai, salbuespenekin...” erantzun honek. “Zeintzuk dira salbuespenak?” “Magrebetik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritakoak”, borobildu du diputatu nagusiak.

EUROPARROK Charlie gara, baina ez Binata, Shengor, Abdul edo Jaineba. Ez dakidana da nola garen platerrean duguna irensteko gai, Mediterraneoko gure begien aurrean beste 950 gorpu irentsi dituenen. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Ondarre Nekazal Etxea

Ostiral gau bat
gosaria barne

Behoko Arrabal, z/g · 20214
Segura (Gipuzkoa)

1



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia Gipuzkoa

www.euskalmuseoa.es

2




Leintz Gatzagako gatz museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Dorletarako errepeidea z/g.
20530 - Leintz-Gatzaga

emaila: www.leintzgatzaga.com

3



Gontzal Mendibil

Nire bihotzak
zure begiak ditu

5 CD opari

www.elkar.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2456. Argia)

NOLA BELZTU BEHAR ZURIA

Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)
Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)

INGURU ABENTURA

Leire Narbaiza Arizmendi (Eibar)
Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)

PLANETARIOA

Marisa Ibarburu Uranga (Donostia)
Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)
Arantxa Aizpuru Arruti (Zarautz)

OTEIZA FUNDazio MUSEOA

Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
Ama Lur Bedialauneta Ibaibarriaga (Ondarroa)

ERLEA

Mikel Escudero Aizpuru (Deba)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Jakoba Errekondok
ARGIAren eskutik
argitaratu berri duen
liburua eskuragarri

Zure baratzea sortzeko,
moldatzeko eta eusteko
jakin behar duzuna

23 €

19,50 €
harpideentzat

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

 **argia**

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

eman eta hartu